

**Jon Arakama Euskadiko kick boxing txapelduna**



**Kirolak >> 13**

**Lakuntzak Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantarien Jaialdia hartuko du larunbatean. Eszenatokitik 139 ahots pasako dira 13 kanta emateko**



**Kultura >> 15**

**Benignoren omenezko auzolanerako boluntarioak behar dira >> 3**

**Garalurrek 53 ekintzaile laguntzaile >> 9**

**Huellas de Altsasu, maskoten inguruan lanean >> 3**

**Gela berri baten premia Uharteko eskolan >> 9**

**Olaztin M8ko egitarauaren despedida >> 9**



Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeko kideek gobernuari klinikaren inguruko azterketa egiteko eskatuko diote.

## Klinikaren aldeko adostasuna >> 6-7

**Arbizuko duatloiaren XX. edizioa jokatuko da larunbatean >> 11**

**Nafarroako 3 bardo talde onenak Etxarriko finalean bertsoan >> 14**

**Adi, datorren astean Etxebizitza eta eraikuntza gehigarri berezia**

# ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus  
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:  
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



**DEKOVEN NAVARRA**  
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com  
www.dekovennavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**  
Telf./Faxa: **948 468 360** · Telefono mugikorra: **690 641 860**



**ZORIONAK ENARA!!!!**  
Ongi pasa eguna guapa. Asko maite zaitugu. Eukene, Izei, Olaia eta familia.



**Helene**  
Gure etxeko sorgintxoak 4 urte bete ditu jada!! Muxu handi bat.



**Onintza eta Lexuri**  
ZORIONAK udaberrirre ekartzen dugubien bi lore polit hoi. Astebuben ospatuko diau. Muxubek biyoi!!



## marsuak

# 18-23

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

### Musika

**Nafarroako Haur eta Gazte Kantari Jaialdiak.** Martxoaren 19n, larunbatean, 18:30ean Lakuntzako kultur etxean.

**Ze esateki, Mexikortxos eta Dj Majaris.** Martxoaren 19n, larunbatean, 21:30ean Altsasuko gaztetxean. **Askapena.**

**Animal Blues.** Martxoaren 24an, ostegunean, 22:30ean Altsasuko Haritza tabernan.

### Dantza

**Dantza emanaldia.** Martxoaren 19an, larunbatean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Altsasuko Musika eta Dantza Eskola.**

### Zinema

**Una semana en Corcega.** Martxoaren 18an, ostiralean, 21:45ean eta martxoaren 20an, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

**Spotlight.** Martxoaren 18an, ostiralean, 22:00etan eta martxoaren 20an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

**Carlitos y Snoopy.** Martxoaren 20an, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

**La chica danesa.** Martxoaren 24an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

### Mendi irteerak

**Aiako haitzak-Oiartzun.** Martxoaren 20an, igandean, 7:30ean Olatzagutitik abiatuko da herriz herriko autobusa. **Sakanako Mendizaleak.**

### Bizikleta irteerak

**Altsasu-Urritzola Altsasu.** Martxoaren 19an, larunbatean, 10:00etan Altsasuko Baratzeko bide plazako lokomotoratik. 74 km.



Ze esatek-ekin dantza egiteko aukera izanen da bihar, Altsasuko gaztetxean.

**Zikloturista taldea.**

**Lezamen.** Martxoaren 20an, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik edo 9:20an Bioitza kanpinetik. 66 km. **Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

### Irteerak

**Etxeberriko buelta.** Martxoaren 20an, igandean, 11:30ean Irurtzungo plazatik. **Familia-Mintzakide.**

### Erakusketak

**Musikartez.** Martxoaren 21etik apirilaren 4ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean. **Iñigo Aritza ikastola.**

**Conocer Navarra.** Apirilaren 10era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur guneko ezkaratzean.

### Hitzaldiak

**Errefuxiatuen krisia: Europako Batasunaren lotsa.** Martxoaren 18an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean. **Hizlariak: Asociación Humanitaria Navarra en Acción.**

**Vienen a violar a nuestras mujeres: desmontando los discursos xenófobos sobre violencia sexual.** Martxoaren 18an, ostiralean, 19:30ean Olatzagutiko kultur etxean. **Hizlaria: June Fernandez.**

### Bertsolaritza

**Bardoak, finala.** Martxoaren 19an, larunbatean, 17:00etan Etxarri Aranazko frontoian.

### Literatura

**Malditas.** Martxoaren 22an, asteartean, 19:30ean Olatzagutiko kultur etxean. **Idazlea: Itziar Ziga.**

### Azoka

**Azoka.** Martxoaren 20an, igandean, 11:00etatik 15:00etara, Arbizun.

### Bestelakoak

**Garaipen festa.** Martxoaren 19an, larunbatean, 17:00etatik aurrera Altsasun. **Askapena.**

**Ping pong txapelketa.** Martxoaren 19an, larunbatean, 21:15ean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

### Deialdiak

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Martxoaren 18an, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Martxoaren 20an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.



**Lexuri Lazkoz Ruiz**  
Larunbatean beteko ditu gure etxeko printzesak 8 urte. ZORIONAK bihotza! Egun ona pasa eta muxu pila bat famili guztiaren partez.

**Bazkideek deskontua**

**Bakarra:**

**4,00€**

**Bazkideek:**

**3,50€**

**Ostiralero SAIOA**  
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astehenetik ostegunera  
**Metropoli forala**  
9:00etatik 11:00etara



Esataria: Alfredo

Gaurko gaiak:

- Ikasleen greba
- Joxeren eta Xafanen aldeko dinamika
- Asperger sindromeaz hizketan

107.3 FM  
**beleixe**  
www.guaixe.eus-en ON LINE

&gt;&gt; Urdiain / SAKANA



## Benignoren omenezko auzolanerako boluntario beharrean

**Apirilaren 16rako egun osoko egitaraua antolatu da. Bazkarirako txartelak dagoeneko salgai daude**

Benigno Mendia Goikoetxea zenari auzolanaren bidez merezitako omenaldia eskaintzea. Lan horixe jarri zion bere buruari Benignoren Lagunak taldeak (BL). Omenaldia auzolanean egin nahi dute, "hori baitzen bere egunerokolana etajana". Antolatutako egitaraua, "auzolan erraldoia" behar bezala aurrera ateratzeko boluntarioak eskatu dituzte antolakuntzatik. Bost lanetarako boluntarioak behar dira: muntatzea-desmuntatzea, sukaldea-zerbitzatzea, harrikoa egitea, garbiketa eta barra. Izena emateko Urdiaingo Mareo eta Kaluxa tabernetatik edo Olatzagutiko Barandi tabernatik pasa daiteke. Bestela, benignolagunak@gmail.com e-posta helbidera idatzi.

### HERRI BAZKARIA

500 pertsonendako bazkaria izanen da, 14:30ean, frontoian. Haur eta helduendako txartelak dagoeneko salgai daude Urdiaingo Mareo eta Kaluxa tabernetan edo Olatzagutiko Barandi tabernan. benignolagunak@gmail.com e-posta bidez erreserbak egin daitezke.

&gt;&gt; Altsasu

# Huellas de Altsasu, etxabereen eta bizikidetzak baketsuaren defentsan diharduen elkarteak

**Egitasmoa maskoten jabeen ekimenez sortu zen, irailean izandako pozoitze kasuen ostean. Berriki elkarte bilakatu, eta bizikidetzak hobetzeko hainbat proposamen igorri dizkio Altsasuko Udalarari**

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

Irailez geroztik Altsasuk maskotak babesteko lan egiten duen talde bat dauka: Huellas de Altsasu. Kolektiboa herrian eman ziren animalien pozoitze kasuen ondorioz eratu zen. Aurretik pozoitze kasu bakanak gertatuak ziren, baina irailekoa masiboa izan zen. Besteak beste, lau txakur hil ziren pozoia zuten haragizko bolak irensteagatik. Egoeraren larritasunaren aurrean, hainbat jabe sare sozialen bidez hitz egiten hasi, eta modu espontaneoan Huellas de Altsasu sortu zuten. "Basakeria handia izan zen, eta jabeok ikusi genuen bazegoela nolabaiteko talde edo kolektibo bat sortzeko beharra, horrelako zerbait berriri errepika ez zedin. Hasieran kolektiboak atxikimendu kopuru handia izan zuen; 40 bat kide izatera heldu ginen", azaldu du Huellas de Altsasu-ko bozeramaile Amparo Bengoetxeak.

Behin taldea eratuta, berau osatzen zuten jabeak ohartu ziren beste urrats bat ematea komeni zela. Horrela, elkarte bilakatzeko prozedura abiatu zuten, kolektibo gisa segurtasun eta sendotasun gehiago izateko asmoz. Alegia, ikusi zuten elkarte bilakatuta herrian eta instituzioetan eragina izateko aukera gehiago izango lituzketela. Orduan, baina, kide asko taldetik irteten ziren, 40 kide izatetik 14 izatera pasaz. Bengoetxearen arabera, behin egoera baretuta jende askok pentsatu zuen arazoa jada bukatu zegoela, eta orduan erabaki omen zuten proiektuak jada ez zeukala zentzurik. "Baina, gelditu garenok garbi daukagu arazoak bere horretan dirauela. Izan ere, geroztik beste zenbait pozoitze kasu eman dira.

Ez horren masiboak noski, baina kezkarriak hein berean".

Gauzak horrela, aurtengo ilbeltzean kolektiboa elkarte bilakatu, eta udalarekin biltzen hasi zen. Orain arte bi bilera egin dituzte, zeinetan alkateak eta etxabereen jabeek gaiaren inguruko iritziak trukatu zituzten. Gainera, lan talde bat eratzea adostu dute. Bertan udaleko talde politikoek, Huellas de Altsasuk nahiz bestelako kolektibo batzuk hartuko dute parte. "Maskoten inguruko arazoak jorrazteko lan talde bat sortzea lortzen handi gisa ikusten dugu. Honek aukera ugari zabaltzen ditu herritarren eta jabeen arteko bizikidetzak oztokatzen duten arazoak konpontze aldera".

### Kontzientziazioa, elkarbizitza baketsurako giltza

Egindako bileretan Huellas de Altsasuk hainbat proposamen luzatu dizkio udalarari. Guztien artean Bengoetxeak bereziki garrantzizkotzat jotzen du eskoletan sentsibilizazio lana egitea, haurrei azalduz animalia bat izateak zer ardura dakartzan. Bere esanetan, jendeak txikia denetik konprenituko balu maskota bat izateak beronen higieñez arduratzea suposatzen duela, bizikidetzak arazo franko saihestuko liriteke. Elkarteko bozeramailearen aburuz, etxabereen jabe askok egun hezkuntza falta dute, eta horrela zaila omen da egoera normalizatu bat erdiestea: "Hainbat jabe animaliak bakarrik bidaltzen dituzte kalera, bere beharakegin ditzaten. Jarrera horren atzean hezkuntza falta eta nagikeria dago. Animalia bakarrik irteten bada kaka edonon egiten du, eta ez du inork jasoko. Horrela kalte handia egiten zaio elkarbizitzari".

Eskoletan kontzientziazio lana egiteaz aparte, maskotendako espazio egokituak sortzea da egin duten beste proposamenetako bat. Euren asmoa belardi batean itxiturak



Huellas de Altsasu elkarteko kideak. UTZITAKOIA

### Kide kopurua, ekimenak abiarazteko galga

Bengoetxeak azaldu duenez, datoren hilabetei begira ideia asko dituzte buruan. Esaterako, higieñezaren inguruan sentsibilizazio kanpaina bat egitea gustatuko litzaieke. "Higieñez modu orokor batean joratu nahiko genuke, Altsasun garbitasun arazoak ez baitira soilik txakur kakek eragindakoak. Hor daude plastikoak, botilak eta bestelako zaborrak, herriko karraketan pilatzen direnak". Dena den, jakitun da ezin izanen dituztela eskuarteetan dituzten plan guztiak gauzatu, kide gutxiegi baitira. "Bilerak hilean

behin egiten ditugu, nahiz eta batzuetan sarriago elkartu. Izatez 14 kide gara, baina bileretara ez garaguztiak bertaraten, konpromiso desberdinak medio. Beraz, lan egiteko jende gutxi gaude".

Egoera horretan, aurrera egiteko modua gauzak pixkanaka egitea dela deritzo Bengoetxeak. Bere esanetan, esfortzuak kontzientziazio lanetara nahiz jendea erakartzeko moduak bilatzera zuzenduko dituzte. "Ateak edonorendako daude irekita. Kide izateko gurekin harremanetan jartzearekin aski da. Behin ekimenak egiten hasita, espero dugu gure jarduna ezagutarazten, eta kide berriak lortzen joatea".

jarri, eta bertan animaliek libre ibiltzeko aukera izatea da, "inormolestatu gabe, eta errepidera joateko arriskurik gabe". Horrelako espazio bat edukitzea beharrezkotzat jotzen du Bengoetxeak, bere esanetan, jabe askok maiz ez baitute den-


borarik animaliak mendira eramateko. "Orain kontua da zein belardi egokitu. Une honetan hainbat aukera ditugueskuarteetan. Espero dugu udalarekin akordiora iristea. Egoera dezente aldatuko litzaiteke horrelako espazio batedukita".

MARTXOAK 19 • LARUNBATA • BARDOEN FINALA

# Gozatu eta dastatu Etxarriko giroa

Tragoak, bokatak, parranda... egun osoan zehar!

Derry taberna - Iraize taberna - Iratxo taberna - Iturri Eder taberna - Larraza taberna - Leku Ona taberna - Xapatero taberna





Aingeru Mikeo

# Sexuaz hitz egin dezagun

**astekoa**

Seme-alaba nerabeekin sexuaz hitz egiteko gomendioa giroan dago, baina gaiari neurrian heltea ez da gauza erraza gurasoentzat.

Horren haritik, Euskadi irratiko saio batean, etxean eta eskolan jasotako heziketaz galdetuta, gazte guztiak erantzun zuten "etxean batere ez, eta eskolan erreproduzio sistemaren deskribapenaren eta antisorgailuen

erabileraren gaineko azalpen simple batetik haratago deus gutxi". Hala ere, tertuliakide batek argi utzi nahi izan zuen eskolako curriculumean ederki jasota daudela sexuari buruzko alderdi guztiak.

Bestalde, liburutegian, kuxkuxean, ohartu nintzen gazteei bideratutako aldizkari batek sexuari buruzko hiru artikulu zituela. Lehenengoa harremanak eta adi-

men emozionalari buruzkoazen. Nork bere burua ezagutzea, autoestimua, emozioak eta sentimenduak nola kudeatu, eta bikote harreman onuragarriak eraikitzeke proposamenak. Bigarrenak larrua jotzeko bi teknika garatzen zituen: bata, "Cuenca" informatika aplikazio bat, GPSa baliatuta, lau hanketan azaltzen den irudiari sarketa egiteko; bestea, "pajimetroa" mugikorrera-

ko aplikazioa masturbatzen ikas-teko, zeinek, eskumuturrean jarrita, denbora, indarra eta gas-tatutako kalorien informazioa ematen duen. Hirugarrena, bi neska gazteri egindako elkarrizketa. Erantzunen arabera, larru jotzeak barra-barra, han-hemen-goak alderatuz, larru beharrak asetzeko haina ligatuz, betiere plazerra erdigunean jarritz, klitose-xuaz, eta abar.

Eta hor daude jai giroan kalimotoxa eta kondoiaren konbinatuak iradokitzen dituzten kanpainak, eta ez dira gutxi "topa-sex" eta "sexmetraia" bezalakoak, sexuaren gaia ardatz hartuta.

Sexualitatea, gizabanakoaren izaera garatzeko atala-harremnaren, afektibitatea, komunikazioa eta atsegina-ala kontsumorako beste produktu zabor bat.

## hara zer dien

# Arrazakeriaren kontrako eguna delako eta pertsona guztiak berdinak garelako... atera gaitezen gizatasunik gabeko "infernu" honetatik

Arrazakeria kontrako nazioarteko egunak, -martxoak 21-, solidarioagoa izan den mundu bat eraikitzeke aukera eskaintzen digu, urtero. Tamalez, eta zorionez, aldaketarako aukera gure esku dagoelako, beti.

Ekinntza eta jarrera arrazista eta xenofoboak, gero eta ohikoagoak dira azkenaldi honetan. Gogoz kontra etxetik atera, gatazketatik, biolentziatik edo miseriar gorritik ihesi, ederki gotortu den Euro-para iritsi nahian dabilzanak gero eta gehiago dira, eta kopurua gel-

diezina eta goranzkoa da. Bidean tratu txarrak, tortura, bortxaketak, esplotazioa, bahiketak, tratueriak, menpekotasuna... jasan etagizakiaskoetaasko hiltzen dira.

Baina berdin duela dirudi. Haien bizitzak gutxiago balioko balute bezala. Nola da posible onartzea Grezian eta hainbat tokietan errefuxiatuekin gertatzen ari dena? "Zorioneko paradisu". Zorioneko? Paradisu? Norentzat? Non? Zein? Europa???

Bitartean, Europako gobernuak beste aldera begiratu eta mugak

gotortzen dituzte, hainbat eta hainbat eskubide urratuz. Ahaztuko balute bezala duela ez denbora gehiegi ere, asko eta asko izan zirela Europatik Ameriketara migratzaile-arrazoi eta egoera berean-joan izan zirenak.

Eskuin muturreko talde erradikalak, eskrupulurik gabeko politikariak eta hainbat komunikabide lan fina egiten ari dira gertaerak desitxuratzen, gure gaitz eta sufrimenduen errudun ihesi dabilzanak, migratzaileak, beste kulturetakoak..... ikustaraz-

ten. Egia osoa ez da ia inon argitaratzen, ordea. Eta gehienetan sinisten diegu.

Datorriguna ez da xamurragoa. Errefuxiatuak jasotzearen kontra azaltzen den gobernuaren indarra Alemanian!

Non geratzen dira, ba, libre ibiltzeko eskubidea, berdin tratatuak izateko, babes jasotzeko...?

Pertsona guztiak berdinak garako, atera gaitezen zentzugabeheria honetatik. Baina IA!

**Sakanako Immigrazio Zerbitzua**

## gutunak

### Esker ona

Martina Ulayarren familia

Lerro hauen bidez, aurreko astean Etxarrin gertatutako ezbeharraren lagundu zenuten gutzior gure esker ona adierazi nahi dizuegu. Medikuei deitu zenietenei, istripuaren leku berean hitz goxoak eta animoak helarazten saiatu zineten gutzior, Etxarriko osasun etxeko kideei, beilatokira inguratu zineten gutzior, hileta elizkizunera etorritakoei, besarkada bana eman diguzue-nei, kalean edo mezu bidez dolu-minak agertu diguzuenoi eta beste hainbati mila esker bihotzez.

## objektibo tik



**Irurtzongo ringa:**  
Larunbatean Nafarroako Boxeo Txapelketa jokatu zen ring itxura hartu zuten Irurtzongo Bi Aizpe pilotalekuan. Junior mailako 57 kilotan Lander Ripodas gailendu zen eta 81 kilotan Moha Hambli. Boxeo borrokaldi profesionallean Cesar Bam-Bam Nuñezek Jonathan Castaño KO utzi zuen.



**Cava festako uzta dastatzen:**  
Maiatzaren 20tik 22ra Lakuntzako Cava Festa antolatuko du Udalak. San Sadurni d'anoiako 10 ardotegik euren uzta ekarriko dute. Igandean 10 cava horiek dastatzeko aukera egon zen. Cava festaren informazioa hurrengo bideoan: <https://www.youtube.com/watch?v=45FYHnkznzQ>

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunak EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Zure iritzia helarazteko:

**Foru plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.eus** edo **948 564 275** telefona.

**Guaixe**

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • [guaixe@guaixe.eus](mailto:guaixe@guaixe.eus)  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa • [kirolak@guaixe.eus](mailto:kirolak@guaixe.eus)  
**MAKETATZAILEA:** Ainhoa Etxeberria Pikabea eta Saioa Lizarraga Iturralde  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • [publizitatea@guaixe.eus](mailto:publizitatea@guaixe.eus)  
eta Eneida Carreño Mundiñano • [publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)

**ERREDAKZIO LAGUNTZAILEA:** Eñaut Agirrebengoa Apaolaza  
**ZUZENTZAILEA:** Maria Luisa Zelaia Mendia  
**ARGITARATZAILEA:** Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILEA:** Goizeder Anton Iturralde • [fundazioa@guaixe.eus](mailto:fundazioa@guaixe.eus)  
**DISEINU ZERBITZUA:** Guaixe komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • [argi@guaixe.eus](mailto:argi@guaixe.eus)  
**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea • [zorion@guaixe.eus](mailto:zorion@guaixe.eus)  
**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

**LAGUNTZAILEAK:**
**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**
**EUSKO JAURLARITZA**  
GOBIERNO VASCO  
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikako Salburuordetza

## &gt;&gt; Altsasu

## Udaltzaingoa duten udalek Polizia Legerako lantandea osatuko dute

Nafarroako beste 20 udaletako ordezkariekin batera, Javier Ollo Martinez Altsasuko alkatea Tafallan izan zen asteartean. Barneko eta Justiziako kontseilari M<sup>a</sup> Jose Beaumontek udaltzaingoa duten udalei egindako deialdiaren ondorioz bilera egin zuten. Kontseilariak Nafarroako Polizia Foru Legea egiteko lantandea sortzea proposatu zuten 21 udal ordezkari, lege horrek etorkizunean polizia horiek arautuko dituelako. Ollok esan digunez, "garrantzitsua da lan talde hau eratzea eta bertan Udaltzaingoa duten udalen ordezkarien artean Foru Lege proposamen egokia prestatzea". Nafarroako Gobernuak 2017ko udaberri-rako aurkeztu behar du lege

proposamena.

Bileran bertan beste gai batzuk ere aztertu zituzten: Udaltzaingoko plantillan egoera, beren beharrrak eta polizia horien eta Foruzaingoaren arteko elkarrekiko harreman handiagoko eredu baten aldeko apustua egitea eta abar. Ollok azaldu digunez, "Altsasuren kasuan garrantzitsua da Udaltzaingoa eta Foruzaingoaren arteko harremana sendotzea, kontutan izanda lehenengok duen polizi kopurua eskasa. Langile kopuru horren inguruan bileran argi geratu da herri askotan arazo bera dutela baina Altsasuren kasua larriena dela esatera ausartzen naiz".

www.guaixe.eus

## &gt;&gt;

## Bi kalek seinaleztapena mustu dute

**Intxostia zeharkalean eta Isidoro Melero eta San Juan lotzen dituen kale zatian udalak aparkatzea debekatu du, zamalanetarako salbu**

Altsasuko Udalak Intxostia zeharkalean eta Isidoro Melero eta San Juan lotzen dituen kale zatian kartelak jarritz jakinarazi zuen aparkatzeko debekua. Eta berriki indarrean sartu da. Intxostia zeharkalea urbanizatzean oinezkoen gunea gisa pentsatu zen, baina kalearen alde batean aparkatzeko aukera utziz. Horren ondorioz kalearen alde batean autoak apenas aparkatzen zuten, baina beste aldean autoz gainezka egoten zen. Horrek, isunak zekartzan.

Arazoa ekiditeko, Altsasuko Udala Udaltzaingoa txosten batean oinarrituta Intxostia zeharkaleko aldeetan aparkatzeko debekua onartu du. Lehen bezala autoak bertatik pasatzeko aukera izanen dute. Zamalanetarako aparkatzeko auke-



Intxostia zeharkaletik autoak pasa daitezke, baina ezin dute aparkatu.

ra ere izanen da. Javier Ollo Martinez alkatea esan digunez, "helburua kotxeen eta oinezkoen arteko bizikidetzaren lortzea da".

Bizikidetzaren hori lortu asmoz, udalak Isidoro Melero eta San Juan kaleak lotzen dituen kale zatian aparkatzea debekatu du. Zamalanetan ari direnak edo autoa bajeetan sartu behar dutenek

sartu dezakete soilik autoa. Alkateak gogorarazi du osasun etxearen ondoan autoendako behin behineko aparkalekua dagoela. Altsasun aparkaleku gabezia dagoen galdetuta, alkateak esan digu, behinjoandean urteko kontuak itxita, udal batzordean diru soberakinarekin aparkaleku bat egiteko ideia aztertu daitekeela.

## &gt;&gt; Uharte Arakil

**Guraso talde batek haureskolak haur gehiago hartzea eskatu du. Bitartean, espazio faltagatik, udala eskolarako gela berri bat egiteko negoziatioetan dago**

Despeditu berri da ikastetxeetan izena emateko epea. Zabaldu zenean Irañetako eta Uharte Arakilgo guraso talde bat Uharte Arakilgo Udalarri zuzendu zitzaion. Euren seme-alabak "D eredu, publikoan eta eskola herrikoian eskolatzearen aldekoak" zirela adieraztearekin batera, "gutako askoren haurrak Uharte haur eskolatik kanpo geratuko direnaren beldurra dugu, gaur egungo eraikinak duen espazioa ikusirik". Horregatik, udalari haur eskola handitzeko aukerak aztertze eskatu zituen.

Egungo azpiegiturak baliatuz proposamenak ere egin zituzten: "eskolako psikomotrizitate gela erdibituznahiko leku egongo litzateke haur eskolako haurrik txikienei beharrezko zaintzak eta arreta emateko". Haur eskolako umeek eta eskolakoek ordutegi ezberdina dutenez, legean oinarri-

tuta, jantokia gela bihurtzeko aukera ere aipatu zuten. "Modu horretan ez eskolak ezta haur eskolak ere ez lukete psikomotrizitate gela galduko".

Eskaera aurkeztu zuten gurasoendako "haur eskola handitzeko herri eskolaren jarraipena erraztuko du". Irañetan eta Uharten 0 eta 3 urte arteko 45 ume inguru daudela eta haur eskolan 11 onartzea "gutxiegi" iruditzen zaiela azaldu dute. "Ratioa handituz, hainbeste familiek haur txikiak goizero Arbizu edo Etxarriraino eraman beharra ekidin daitekeela iruditzen zaigu". Guraso horiek auzolanerako eta dirua lortzeko jarduerak antolatze prest azaldu dira.

**Udala**

Hezkuntza Departamentuarekin hizketan ari da azkenaldian Aina-

## Eskola handitu beharra



Umeak haur eskolako tailer batean. ARTXIBOA

ra Aiestaran, Uharte Arakilgo alkatea. "Heldu den ikasturtean 15 haur eskolan sartuko dira eta espazio falta dugu. Eskolan gela berri bat behar da eta departamentuarekin konponbidea bilatu nahian ari gara". Momentuz, udalak haur eskola handitzeaz ez dio

helduko. Eta zehaztu nahi izan du bi herrietan dauden 45 ume horietatik 15 bat heldu den ikasturtean eskolan edo ikastolan hasiko direla. Alkateak gogorarazi du plazak bete eta izena emandako Uharte haurren bat plazarik gabe geldituko balitz Arbizuko Kattuka

haur eskolan aritzeko aukera izanen lukeela. Halakorik gertatuz gero Uharte Arakilgo Udalak Lakuntzako eta Arbizuko udal-ekin hitzarmena sinatuta duela eta gastuen parte bat finantzatzeko duela azaldu du.

Alkateak ikuspegi "globala" aipatu du. "Eskaeraren azterketa eta aurreikuspenak egin behar dira". Urteko urterako erantzunak ematea kostu handia dutela aipatu du. "Urte batzuetan haur asko daude eta beste batzuetan gutxi. Plangintza beharrezkoa da". Eta ikuspegi zabal horren barruan Aiestaranek Nafarroako tokiko maparen berrantolaketan aukera bat ikusten du (gaur dute hari buruzko bilera Irurtzunen). "Erronka da. Sakanan lau haur eskola daude. Irurtzunen ez dago. Guk arakildarren eskaerak ditugu. Eskualde mailako azterketa orokorra eta eztabaida egin behar da. Tokiko maparen berrantolaketarekin hastean horri helduko diogu".

Aldatzea jarrera bat da.  
Irabaztea gogobetetzea.



Hyundai Tucson Berria.  
Espainian 2016ko kotxerik onena.

Aldaketaren apustua egin eta irabazi dugu. Sari handi bat lortu dugu: Espainian 2016ko kotxerik onena izatea. Kotxe handi bati saria baina batez ere jarrera bati. Mila esker Hyundai Tucson kotxean apostu ezberdin bat ikusi duzuenoi.

Aldaketaren poterea nabaritu [www.hyundai.es-en](http://www.hyundai.es-en)

 NEW THINKING.  
HYUNDAI NEW POSSIBILITIES.

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A.  
ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • [www.autsanmiguel.com](http://www.autsanmiguel.com)



Gama Hyundai Tucson: Isuriak CO<sub>2</sub>(gr/km):  
119-175. Kontsumo mixtoa (l/100km): 4,6-7,5.

**SAKANA****Haur eskolak finantzatzeko  
138.331 euro**

Nafarroako Gobernuak 81 udal haur eskola finantzatzeko 5.749.912,15 euro bideratuko ditu. Indarrean den kurtsorako, guzti-

ra 7.869.667 bideratuko ditu. Sakanako hiru udalek jaso dute 0 eta 3 urte arteko zikloak finantzatzeko laguntza, 10 unitate guztira.

Haur eskolen finantziakzioa			
Heria	Haur eskola	Unitateak	Dirua
Uharte Arakil	Pausoka	1	34.115
Arbizu/Lakuntza	Kattuka	6	62.589
Altsasu	Txirinbulo	3	41.627
<b>Guztira</b>		<b>10</b>	<b>138.331</b>

**>> Irurtzun****Etxeberrri helburu**

**Igandean, 11:30ean, Irurtzungo plazatik abiatuko dira Familia-Mintzakideko kideak pasiatzera**

Hilean behin euskara praktikatzeko irteerak edo bestelako jarduerak antolatzen dira Irurtzunen. Familia-Mintzakide egitasmoa da. Otsailaren 28rako Etxeberriko buelta egiteko asmoa zuten. Baina egueraldiak ez zien utzi eta Pikuxar euskal txokoko sukaldean ogia egiteko tailerra egin zuten.

Iganderako hitzordurako Etxeberriko buelta hartu dute Familia-Mintzakidekoek. 11:30ean plazan elkartuko dira eta handik Biahizpeko pre-sarantz joko dute. Zubia gurutzatu eta Etxeberriko bidetara helduko diote. Behin Etxeberri aldapa beharri ekinen diote Irurtzuneraino errepidetik bueltatzeko.

**>> Arakil****Etorkizuneko itzala landatuta**

**19 zuhaitz landatu zituzten larunbatean. Herriz herri dibilen zuhaitzaren eguna aurten Itxasperrin izan zen**

Arakilgo Zuhaitz Eguna hartu zuen Egiarretako Itxasperrin ermitak larunbatean. Aitzurrak aldean eta lanerako gogoz 25 bat arakildar elkartu ziren. Goiztiar ibili zirenak ermita erromanikoaren inguruan lanean aritu ziren. Natur hesia sortzeko landareak aldatu zituzten. Ermitako zelaian lau lizar eta hiru astigar landatu zituzten eta dozena bat intxaurrondo ermitaren inguruan. Itxasperrin joan ziren haurrek zuhaitz bana zaintzeko ardura hartu zuten.

**>> Etxarri Aranatz****Udalak  
Basterretxearen  
Enneco obra jaso du**

**Enneco, haritzaren memoria parkean laguntzeagatik, udalak eskultoreak egin zuen eskulturaren errepika jaso du**

Nafarroa Bizirik fundazioako presidente Patxi Abasolok Nestor Basterretxearen Enneco obra emandie Etxarri Aranatzeko alkate Eneka Maiz, kultura zinegotzi Lur Larraza eta kultura teknikari Amaia Ijurrari. Abasolok eta fundazioak horrela udalak Enneco proiektuaren finantzazioan lagundu izana eskertu dute. Aitortza bera jaso dute, besteak beste, Bergarako, Uharte Arakilgo, Arruazuko edota Arbizuko udalek. Basterretxearen Enneco proiektuaren sustatzailetako bat izan zen. Han jarriko den eskultura bat egin zuten. Basterretxearen zioenez, "obraketuaren gogortasuna eta mendeetan zehar Nafarroak jasan duen errepresioa adierazten ditu, baina baita herritarrek beraien kultura eta hizkuntza mantentzeko bilatu dituzten moduak ere".

**>> Arbizu****Igandean, azoka**

**Plazan, 11:00etatik 15:00etara**

Hamar ekoizle elkartuko dira igandean Arbizun. Artisau, eskulangile, bitxigile, harakinak eta beste euren produktuak salgai jarriko dituzte. Plazatik pasatzen direnek taloak, hestekiak, bitxiak, xaboia, fofutxak, txanoak, teilak, txotxongiloak, artilezko gauzak eta landutako zurak eskuratzeko aukera izanen dute.

**>> Arakil / Irurtzun****Institutu berria  
Biurdanaren  
masifikazioa  
eragozteko**

**Iruñeko ikastetxeak Arakil eta Irurtzungo DBHko D ereduak ikasleak hartzen ditu**

Jose Luis Mendoza hezkuntza kontseilariak Iruñeko Sanduzelai auzoan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) ikastetxe berria eraikiko dutela jakinarazi zuen astelehenean. Deredukoa izanen da ikastetxe berria 2018ko irailerako martxan izanen dela aurreratu du kontseilariak.

Iruñeko Iparraldeko Institutuko Batzordeak aspaldi ari zen Biurdana institutuaren masifikazioa salatzen. Gaur egun Biurdanako ikasleak ikastetxean bertan eta Donibane ikastetxeko solairu baten artean banatuak daude. Heldu den ikasturtean ikasleek bi ikastetxe horietan jarraitu beharko dute. Baina sartzen ez direnez, Donibane ikastetxeko 3. solairua ere erabiliko dute. Batzordeak, masifikazioa salatzearekin batera, Biurdana ikastetxean estalpe bat egitea eskatu du. Horren faltan, astero soin heziketako 30 bat klase Anaitasuna kiroldegian egiten dira, 540 bat euroko gastua dena.

**>> Etxarri Aranatz****Haur  
ludotekako  
izen ematea  
zabalik**

Danbolintxulo haur ludotekak martxoaren 23ra arte aurre-matrikulazio epea zabalik duela jakinarazi du. Danbolintxulo haur eskolatik jakinarazi dutenez, irailtik garilera bitarteko zerbitzua eskaintzen du. Berean 8 hilabete eta 3 urte arteko umeak hartzen ditu. Haien familien araberrako ordutegia eskaintzen du. Haur ludotekaren martxari dago-kionez, 2005ean sortu zenetik gurasoek batzar bidez kudeatzen dute. Informazio gehiagonahi duenak 660 564 414 telefonoan edo [www.danbolintxulo.com](http://www.danbolintxulo.com) web orrian jaso dezake.

**>> Olatzagutia****Elkartasun eguna  
bertan behera**

Olatzagutiko Gazte Asanbladak (OGA) Baltistanekiko elkartasun eguna antolatu zuen larunbateko. OGAKo kideek jakinarazi dutenez, larunbatean "ospatu behar zen ekitaldian egon den partizipazio faltagatik behartuta ikusi gara prest zeuden jarduera guztiak bertan behera uztera". Antolatzaileek azaldu dutenez, "egoera ikusita ezingo genituen gure helburuak bete Baltistan fundazioarekin kolaboratzeko". Azkenik, OGAtik ekitaldian parte hartzeko asmoa zuten guztiei esker eman eta barkamena eskatu diete.

**Parlamentariak Josefina Arregi klinikari bisitan**

Parlamentariak eta Sakanako ordezkariak azalpeni adi.

**Osasunbideak klinikari  
buruzko azterketa  
egiteko adostasuna**

**Bere bideragarritasun egoera larriari konponbidea eman eta Nafarroako osasun sisteman egokien txertatzeko helburuz egingen litzateke**

Nafarroako Parlamentuaren otsailaren 11ko bilkuran ez zen nahikoa adostasunik lortu eta ez zen aurrera aterata Osasunbideak Josefina Arregi klinikari buruzko bideragarritasun azterketa egiteko eskaera. Parlamentuko Osasun Batzordea Josefina Arregi klinikari bisitan izan ziren herenegun eta talde parlamentariak azterketa hori egiteko prest azaldu dira. Ekimen bateratu bateratu baten bidez, Nafarroako Gobernuari ikerketa egiteko eskaera luzatzea proposatu zuten, baina modua ez zuten zehaztu.

Bai mozioa bai klinikaren lana bertatik bertara ezagutzeko eskaera EH Bilduko taldeak egin zuten. Asun Fernandez de Garaialde Lazkanok "langileen eta boluntarioen lanari esker irauten duen zerbitzuaren bideragarritasuna" bermatu beharra zegoela azaldu zuen. "Klinikak gaur egun Osasun Departamentuarekin duen konzertua (170 euro ohe bakoitzeko) egiten duen lanarekin ez dator bat. Klinikak donazioen eta boluntarioen zoriaren menpe dago. Hori ezinezkoa da, hirugarren munduko egoera bat da". EH Bildu klinikari publikoaren aldekoa dela azaldu zuen. Baina "ez dugu planteatzen zuzenean egitea, baizik eta departamentuak ikerketa egin dezala, eta elkarrekin eztabaidatu ondoren, neurriak hartzea". Koalizioko kideak esan zuenez, "departamentuak Altsasuko klinikari behar du. Nafarroan dauden beharrak aztertu eta hori klinikaren kokapena" zehaztearen alde agertu zen.

UPNko Begoña Ganuzak azpimarratu zuen "klinikaren balioek egun humanitatea galdu duen medikuntza humanizatzen dute". Errejonialisten bozeramailea azterketa zehatza egitearekin ados

agertu zen, "oso bidegabea baita bere lana gutxienezko estandarrekin ere ez aitortzea".

Geroa Baiok Maria Solanak parlamentuan eman zuten absentsioa defendatu zuen esanez haien zalantza ez zela helburua, metodoa baizik. Parlamentuko mozioan departamentuari eskaera unilaterala egiten zitzaioela esan zuen. Geroa Baik adierazi zuen fundazioa, klinikako, Osasun Departamentuko eta beharrezkoa bada beste departamentuetako ordezkariak lan mahai baten falta sumatu zuela. Azterketa "denen parte hartzearekin eta azkar" egin behar zela gaineratu zuen.

Ahal Duguko Tere Saezek "kontzertuaren diru kopurua zerbitzuaren benetako baldintzetarako doitzeko" eskatu zuen; "gauegun bokazioan eta boluntarioetan oinarrituta baitago". Lan baldintzak hobetu eta beharrezko langile kopurua kontzertuan jasoa gelditzeko eskatu zuen. Saezen arabera, "ikusteko dago nola txertatzen den klinikari honen lan izpiritua osasun sisteman; merezi duen balio etikoa eta ekonomikoa emanez".

PSNko Maria Chivitek esan zuen klinikari ezin zuela "zoriaren eta donazioen menpe gelditu". Parlamentuko talde guztien artean ekimen bat zehaztu zitekeela aipatu zuen, klinikari "osasun eta gizarte zerbitzuen arloan dagoen funtzioa zehazteko eta sinergiak aztertze". Klinikak duen arazoa onartuta, azterketa Nafarroak duen beharretan oinarrituta egin behar zela adierazi zuen, ez klinikari dituenetan.

PPNko Javier Garciak osasun egoitzaren egungo egoera aztertzearekin ados azaldu da. "Horrela, aukerak ikusi eta Nafarroako osasun sisteman osotasunerako egoiena dena aukeratu behar da". Klinikari Nafarroari eskaintzen dion zerbitzuak mantendu behar zegoela nabarmendu zuen.

## Parlamentariak Josefina Arregi klinikari bisitan

**Josefina Arregi klinikak hainbat arlotan ez du egoera samurra bizi eta Osasun Departamentuarekin bestelako akordioa behar du**

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeko kideek Josefina Arregi klinikaren lanaren eta finantza egoeraren argizki argi askoa eraman zuten bueltan. Horretaz arduratu ziren Juan Manuel Vicente kudeatzailea, Joaquín Roldan mediku zuzendaria eta Vicente Madoz Felipe Lezea fundazioko patronatuko lehendakari-ordea.

Vicentek argi hitz egin zuen: "gure ustiapen kontua beti negatiboa da. Sortzen dugun zorra donazioekin estaltzen dugu. Baina beti baldintzatuta gaude". Aurrekoetan bezala, joan den urtean 48.255 euroko zuloa egin zuen klinikak (1.478.141 euroko sarre-ak eta 1.526.396 gastuak). Donazioetan jasotako 114.208 euroek salbatu zuten urtea. Vicentek esan zuenez, "zifra horiekin ezin dugu inbertsiorik egin (koltxoiak, jantziak, kamarak eta beste). Gainera, berritu beharreko materiala eta altzariak daude". Bestalde, aurrekontuaren %82 langileei ordaintzeko dela zehaztu zuen.

Kudeatzaileak langileek egindako ahalegina nabarmendu zuen. "Behar baino langile gutxiago daude. Daudenak lan karga handiagoa dute. Soldatak ohikoak baino txikiagoak dira eta, gainera, 2011tik izoztuta daude". Vicentek azaldu zuenez, langileak "oso ongi trebatuta" daude, eta euren jardunak "bokaziotik asko" duela gaineratu zuen. Horrek guztiak "ez du erakargarri egiten jendea hona lanera etortzea", eta eszedentziak eta haurdunaldiak erantzuteko arazoak izan dituztela aipatu zuen.

Vicentek "itsumustuan aurrera ez segitzeko" Nafarroako Gobernuak azterketa bat egitea egoki jo zuen. "Gauza bat da irabazi asmorik ez izatea eta beste bat da 22 urtean berrikuntzarik ez egitea, langile gutxi izatea, gaizki ordaindua izatea, gaur egun mantenu zerbitzurik ez izatea eta hori boluntarioek egitea..." Egungo kontzertuarekin klinikak ohe bakoitzeko 170 euro jasotzen ditu. "Gurearen moduko ohe bat Osasunbidean zein kostu duen jakin nahi nuke. Haiendako pagotxa gara".

# Klinikak duintasunez, eta arazo handiarekin, aurrera egiten du



Joaquín Roldan mediku zuzendaria parlamentariari azalpenak ematen.

## Madoz

Fundazioko kideak lehenik nabarmendu zuen Altsasuko klinikak estatuan parekorik ez duela. "Klinikari demetzia gaitz larriak eta portaera desorekak dituzten gaixoak tratatzen da. Helburua pertsona horiek etxean bizi ahal izateko prestatzea da, familiak eta gaixoak entzunez, konprometituz.

Helburu mugatua eta praktikoa da: jendea hilabeteren buruan etxera bueltatzea". Horretarako, gaixoa artatzeko psikiatraz, geriatraz eta neurologoz osatutako lantaldea dagoela gogorarazi zuen.

Klinikari dagoen giroak sendatu egiten du". Madozek kostu gutxiarekin klinikari emaitza handiak lortu direla azpimarratu zuen.

"Baina duela zenbait urteetatik zabalik mantentzea da erronka. Felipe Lezea bat-batean hiltzeak gabe utzi gintuen. Ekonomia zailtasunak irudimenaz eta Sakaren eskuzabaltasunari esker gaintu ditugu". Aurrera egiteko langileek asko tragatu dutela azpimarratu zuen ere. Klinikari-

rendako konponbidea eskatu zuten parlamentariari.

## Roldan

Sendagile zuzendariak azaldu zuenez, "klinikari, bere berezitasun fisiokoengatik, mota honetako gaixoak hartzeko prest dago. Ospitale gunean ezinezkoa da. Gaitzagatik noraezean ibiltzen denak horretarako aukera du hemen. Iruñean ezinezkoa da hori". Gaixo bakoitzari arreta berezitua ematen dietela ere nabarmendu zuen: "batek bazkaltzeko ordu bat behar badu, pertsona bat ondoan du".

Medikuak zaintzailea zaintzearen beharra ere azpimarratu zuen. "Gehienetan emakumeak dira. Ez dira laguntzen uzten. Eta gaizki egitearen, erru sentipena dute. 24 ordu egoten dira lanean. Egoera gogorak bizi dituzte". Horregatik, Nafarroako Alzheimer Gaixoen Familien Elkarteak egiten duen lana goraipatu zuen. Klinikari hilean bitan senideen topaketak hartzen ditu. Bestalde, inkestak emaitzengatik dakite klinikari jasotako zerbitzuarekin oso pozik daudela. +www.guaixe.eus

## 5 proiektu

**Ikasleekin.** Etorkizuneko zain- tzaileak trebatzeko proiektua da eta 9-10 urteko ikasleekin egiten dute, hiru egunetan. Aurrenekoan klinikari bi profesional eskolara joan eta Alzheimerrari buruzko azalpenak ematen dizkiete. Aurretik, ipuinen bidez gaia gelan landua dute. Bigarren egunean eguneko zentroko lau adindu eskolara joaten dira eta elkarri garai bateko eta egungo eskola nolakoak den azaltzen diote. Azkenik, eskolatik klinikari bisitan joaten dira. Duela bi urte hasi ziren Zelandi eskolarekin. Sagrado Corazon ikastetxea ere sartuko da. Orain 14-15 urteko gazteendako programa lantzen

ari dira.

**Bocalan Biak Bat.** Asistentzia txakurrak trebatzen dituen fundazioko kideek maskota bidezko estimulazioa lantzen dute eguneko zentroko gaixoekin. **Musikoterapia,** gaixo larriekin saio indibidualizatu eta txikietan egiten da. **Arteterapia.** Klinikari Complutensen Unibertsitatearekin eta Uharte Iruñeko arte garaikideko zentroarekin hitzarmen du. Hala, arte terapiak klinikari eta zentroan egiten dira. **Indar entrenamendu programa.** Gaitasun motorrak lantzeko gimnasioan lanean aritzen dira gaixoak astean hirutan, 45 minutuz. Roldan medikuak esan zuenez, programa horiek gaixoengan emaitza onuragarriak dituzte.

## Klinikari datuak

### Eguneko zentroaren erabiltzaileak (25 plaza)

Nongoak	Kopurua
Sakandarrak	%18,26
Iruñerria	%50,62
Gainontzeko Nafarroa	%31,12

### Ospitalaren 2015eko datuak (21 ohe)

Erabilera	%100
Sarrerak	241 (129 emakumezko eta 112 gizonezko).
Gaixo berriak	172
Bataz besteko adina	80,7 urte
Egonaldien iraupena	Hilabete inguru
Altak	%91,7
Itxaron zerrenda	25 bat egunekoak, 30-40 pertsona

### Ospitalizatzeen jatorria

Lehen mailako arreta	%73,86
Especializatutako arreta	%26,14

### Ospitalizazioen zergatia

Portaera asaldura	%61
Nahaste-arazo larria	%13,28
Psikopatologia desoreka	%7,88
Kognizio hondatzea	%5,81
Loaren nahasmena	%5,39
Bestelako patologiak	%6,64

### Lehen diagnosiak

Alzheimer	%59,75
C.Lewy demetzia	%13,28

**Amaya**  
Okindegia-gozotegia

**ARAIA** 945 314 572

**ALTSASU**

- Lantegia: Texeria aldapa 948 562 205
- Zumalakarregi plaza 948 468 026
- Amaia supermerkatua
- Otadiako Kristo Deuna plaza, 19. 948 562 185
- Gipuzkoa 4
- San Juan kalea 50. 948 564 053
- Netto 659 288 401

okindegia - gozotegia - kafetegia - ogia - pastelak - kafea - txokolatea - pastak - bonboiak...



**ALTSASU**



**OLAZTI**



948 468 755 **ETXARRI ARANATZ** 948 461 660

&gt;&gt; Etxarri Aranatz

## Epaiketa politikoen kontrako adar deia

Patxi Arratibel (apirilak 14) eta Joxe Aldasoro (maiatzak 17) epaituko dituzte Espainiako Auzientzia Nazionalan. 8 eta 9 urteko espetxe zigor eskaerei aurre egin beharko diete

Udaberrian bi etxarriar Espainiako Auzitegi Nazionalan epaituko dituzte. Epaiketa horiek salatzen eta epaiketa politikoen kontra egiteko dinamika bat abiarazi dute Etxarri eta Sakanan. Lehenik eta behin gogorarazi dute Patxi eta Joxe torturatu egin zituztela eta espetxean ia bi urte eman zituztela. Dinamikako bozeramaileek salatu zuten, "epaiketa horiek burutzea astakeria da tortura berak prozesu osoa baliogabetzeaz aparte, usteko delituak aktibitate politikoko hutsa direlako. Hau da, Eskubide Zibila eta politikoko aitortzen dituzten eskubideak (adierazpen askatasuna, elkarte askatasuna, biltzeko askatasuna, adierazpen politikotatik parte hartzeko eskubidea...).



Eskubide zibil eta politikoen defentsan aritzeko deia egin dute.

Abiarazitako dinamika nahia sakandarrak "eskubide zibil eta politikoen defentsan kalera ateratzea da". Horrekin batera, "Sakanako herritarrek disidentzia zigorren duen salbuespeneko legedia arbuia dezan bilatzen dugu eta Sakanako jendea euren eskubideen defentsan ahalduntzea bilatzen

dugu". Era berean bi etxarriarrak eta egoera berean dauden sakan-darrak (Eduarne, Ainara, Ruben, Adur eta Fran) epaituak ez izatea eskatzen dute.

### Adarrak

Dinamikaren sustatzaileek "epaiketa politikoen kontrako deia da-

rrak biltzeko" Sakanako hainbat herrietan adarrak banatu dituzte. "Epaiketa politikoen kontrako atxikimenduak" jasotzeko eta epaiketa zain dauden auzibidean dauden sei sakandarrei elkartasuna ikustarazteko argazkiak egitea eta etxarri-libre@gmail.com e-posta helbidera bidaltzea proposatu dute. "Adarraren alarma deia, adarraren elkartasun deia da" bihurtu nahi dute, "bihur dadila beresoinua askatasun garrasi eta borrokarako deia".

Etxarri Aranatzeko Elkartasun Eguna antolatu dute apirilaren 23an. Egun horretan, 20:00etan, Epaiketa politikorik ez; Xafan eta Joxe aske! lelopean manifestazioa deitu dute eta sakandarrei parte hartzeko deia egin diete.

[www.joxetaxafanaske.org](http://www.joxetaxafanaske.org)

Dinamikaren informazioa eta antolatuko ekintzen berri emanen dute orrian.

&gt;&gt; Arbizu

## Ainara Ladron Logroñoeko espetxera

Martuteneko espetxean aste bat eman gabe, eta gaurko Donostian epaiketa data izanda ere, Ainara Ladron Logroñoeko espetxera eramane zuten asteburuan. Bestalde, igandean Martuteneko espetxera martxan laranja egin zen Eleak-Libre mugimenduek deituta. A8 autobidean mozteagatik egin behar zen epaiketara ez agertzeagatik atxilotu zituzten hiru gazteak askatzea eskatu zuten, haiek estatuko espetxetara dispersatu izanarekin batera. Gazteek autobidea "elkartasunaren izenean" moztu zutela nabarmendu zuten. +www.guaixe.eus



&gt;&gt; Altsasu

## Ikasleak hezkuntza eredu propioaren alde

150 bat ikasle Altsasuko goizeko kontzentrazioan parte hartu ondoren, Iruñeko manifestazioa joan ziren

Ikasle Abertzaleak deituta ikasle mobilizazioak izan ziren atzo. Kalera atera ziren ikasleek Nafarroan LOMCE indarrean dagoela salatu zuten. Unibertsitatara

"okerrara" eramaten dituzten EU2015 eta 3+2 neurrien kontra egin zuten. Nafarroan euskaraz ikasteko eskubidea bermatua ez dagoela nabarmendu zuten eta Lanbide Heziketan eta NUPen euskarak bizi duen egoera aipatu zuten. Irakasle posturako lan

deialdian hizkuntzaren arabera bizerrenda egotea salatu zuten. Ikasleen Eskubide eta Betebeharren Dekretua bertan behera uzteko eskaera berretsi zuten.

Euskal Herriak hezkuntza sistema propio bat behar duela aldarrikatu zuten kalean ikasleek. Sistema horrek nola beharko lukeen ere azaldu zuten: herritik eta herriaren mesedera dagoena, euskalduna, herritarra, askatzailea eta feminista.



Ikastetxeko kontzentrazioaren ondoren, gaztetxean gosalduta zuten gazteek.

## Iñigo Aritza ikastola, zuntz optiko bidez konektatuta

Altsasan kokatuta dagoen ikastolan zuntz optiko bidez konektatzeko apustua egin zuen. Hiru hileko kontua izan behar zuenak bederatziz izan ziren, baina otsailaren 12az geroztik Iñigo Aritza ikastolan zuntz optiko bidez konektatuta daude. Ikastolatik esan dutenez, horrela konektatuta dauden Sakanako



aurreneko ikastetxea dira. "Aldaketa ikaragarria da, orain 50 ikasle-tik gora, batera aritu daitezke lanean, bakoitza bere ordenagailutik".

Iñigo Aritzatik gogorarazi dute aspalditik ari direla teknologia berriekin lanean: "LH3tik aurrera ikasle bakoitzari ikastolako posta elektronikoa bat ematen zaio.

LH3., 4., 5. eta 6. urteetan Ikasys programarekin aritzen dira, bakoitzak bere mahaian ordenagailuarekin lan egiten duelarik. LH5 mailan mekanografia lantzen dute sistematikoki eta, horretaz aparte, Drivek ematen dituen baliabideez baliatzen dira lanak egiteko". Bestetik, Euskal Herri osoko ikas-

toletan txertatu den Eki proiektu berria eta berritzailea aipatu dute. "Konpetentzietan oinarritzen den hezkuntza proiektu integrala da eta teknologia berrien konpetentziek garrantzi handia dute". DBHko lehen bi mailetako ikasleek gelan ordenagailuarekin ari direla azaldu dute.

## Errefuxiatuen krisiaz jakiteko

Gaur, 19:00etan, Altsasuko Gure Etxea eraikinean Asociación Humanitaria Navarra en Acción-en hitzaldia

Calaisko (Frantzia) errefuxiatu kanpalekuan milaka pertsona oso baldintza txarretan Britainia Handira pasatzeko aukera baten zain. Greziako Lesbos uhartean Turkiatik etorritako migratzaileei ezin behar bezala artatu. Europako mugetan migratzaileen pasa oztopatzeko hesiak jarzteaz. Greziara iritsitako pertsonak bueltan bidaltzeko erabakia.



Juan Pedro Higuero Calaisko kanpamenduan. UTZITAKOIA

Horietaz guztietaz eta gehiagor ariko dira gaurkoan Asociación Humanitaria Navarra en Acción (AHNA) elkarteak. Haietako bat, Juan Manuel Higuero

altsasuarra, Calaisko errefuxiatu kanpalekuan migratzaileak laguntzen hilabete eman du. Berarekin batera hitza hartuko dutenak ere han izanak dira.

## Askapenaren garaipen festa

Larunbatean, 17:00etatik aurrera izanen da

Askapena erakunde internazionalistak garaipen festa antolatu du biharko. 17:00etan Zubiondo elkartearen brindisarekin hasiko da ospakizuna. Handik kalejira internazionalista egiteko aterako dira. JoTaFa txarangak jarriko ditu doinuak. Ospakizuna gaztetxean izanen den kontzertuekin despedituko da. 22:30etik aurrera Ze Esatek! eta Mexikortxos taldeak ariko dira. Gual-



dia Dj Majarisen doinuek luza-tuko dute.



## SAKANA

## Egunero da martxoak 8

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna zela eta lelo hori zuen kontzentrazioa egin zuten Sakana Lanbide Heziketako ikasleek. Pankarta gero ikastetxearen sarreran utzi zuten. Baina hori ez zen emakumeen kontura Lanbide Heziketa institutuan antolatutako ekitaldi bakarra. Eguna martxoaren 8aren historia azaltzen duen *Pany Paz* bideo emanaldiarekin hasi zen.

Ondoren, ikasgela bakoitza eszenatokira atera zen. Handik bi emakumeren berri eman zieten gainontzeko ikaskideei. Ingurukoa izan behar zuen batek, atzerrikoa bestek. Hala, ikasleek Camila Vallejo, Michel Mouton, Murile Ruiz de Larramendi, Petra Horna, Angela Davis, Maider Unda, Maria



Ikasleak ikastetxe atera eraman zuten aldarrikapena. UTZITAKOA

Markotegi, Marie Curie, Fidela Bernat, Frida Calho edo Dolores Ibarruri zein izan ziren jakiteko aukera izan zuten. Eta inori ez ahazteko, emakume horien iru-

diak zituzten kartelak ikastetxean jarri zituzten. Lanbide Heziketa institutuko Emakumeen Eguneko egitaraua denendako hamai-ketakoarekin despeditu zen.

## Olatzagutia

## Emakumeen Eguneko programazioa despeditzeko bi jarduera

Feminismoa ez da matxismoaren antidoto onena baizik. Orain inoiz baino beharrezkoagoa. Lelo hori du Emakumeen Eguna dela eta Olatzagutian antolatutako egitaraua. Hura bi hitzaldik despedituko dute. June Fernandez, Pikara web aldizkariko zuzendaria eta sortzaileetako bat, gaur Olatzagutian izanen da. *Vienen a violar a nuestras mujeres: desmontando los discursos xenófobos sobre violencia sexual* izenburuko hitzaldia eskainiko du, 19:30ean, kultur etxean.

Toki berean, eta ordu berean,

baina heldu den asteartean, Itziar Ziga idazleak *Malditas, una estirpe transfeminista* liburua aurkeztuko du. Kontakizun ofizialetatik kanpo gelditutako zortzi emakumeren historiak jaso ditu Zigak: Valerie Solanas, Sojourner Truth, Sylvia Rivera, Louise Michel, Annie Sprinkle, Olympe de Gouges, Kathleen Hanna eta Laura Bugalhornen historiak hain zuzen ere. Zigak esan duenez, "ez da feminismoaren bertze historia bat, bertze historia batzuk baizik". Gaur egun bizi duen feminismoari egin dizkieten ekarpenak atera nahi izan ditu argitara.

## Cederna-Garalurrek 53 ekintzaile lagundu zituen 2015ean



Prestakuntza ikastaroa.

## Haitatik 26k autoenplegurako pausoa eman zuten

Cederna-Garalurrek Sakanan ekintzailetasuna laguntzeko zerbitzua eskaintzen du. Joan den urtean zerbitzu horretan 32 emakumezko (%60) eta 21 gizonezkoen (%40) kontsultak jasozituzten. Cederna-Garalurren 53ei euren egitasmoa aurrera eramateko laguntza eskaini zieten eta 26 izan ziren autoenpleguaren bidez enpresa sortu zutenak.

## Cederna-Garalur Sakanan

Bere enpresa-idea garatu nahi

duen ekintzaileak Cederna-Garalurren jaso dezakete babesa. Egoitza Utzaganen, Sakanako Garapen Gunean du, Arbizuko Utzubar industrialdean. Susana Mendinuetak eta Oskia Lazkozek, astelehenetik ostiralera, 9:00etik 14:00etara, ekintzaileei honako laguntza eskaintzen diete: diru-laguntzei buruzko informazioa; jarduerabat martxan jartzeak berekin dituen betekizunei buruzko informazioa; proiektuaren bideragarritasuna aztertze laguntza eta elkarte motei buruzko aholkularitza eta informazioa ematen dute.

## Trebartzeko bi tutorial

**Ekintzaileei eta bere kontu lanean ari direnei, bereziki izapideak on-line egin nahi dutenei zuzenduta dago.**

Cederna-Garalurrek ekintzaileei laguntzeko zerbitzua du, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak finantzatzen duen Navarra Enpresa Sareko kidea da. Haren bidez, Arbizun dagoen Utzagan Sakanako garapenerako zentruan, ekintzaileei zuzendutako bi tutorial eskai-

niko ditu. Lehenengo tutoriala, nola antolatu zure agiriak zerga-betebeharrak betetzeko, apirilaren 25ean, astelehenean izanen da, 10:00etatik 14:00etara. Bigarren tutoriala, haziendako izapideak on-line bidez nola egin, maiatzaren 2an, astelehenean izanen da, 10:00etatik 12:00etara.

## Izen-ematea

948 567 010 telefonoan edo sakanadmon@cederna.es e-posta helbidean.

## Langabezia, antzeko

## Otsailean ilbeltzean baino 4 langabe gutxiago zeuden Sakanan, 1.288

Nafarroako Enplegu Zerbitzuan ibarreko 1.288 pertsona zeuden lana bilatzeko izena emanda otsaila akaberan. Haitatik %59,16 emakumezkoak ziren (762, aurreko hila-betean baino 4 gutxiago) eta %40,84

gizonezkoak (526, berdin). Adinari erreparatu gero, %48,91k 45 urte edo gehiago zituzten (630, 13 gutxiago). Bigarren adin maila, %41,23, 25 eta 44 urte arteko langabetuena da (531, 10 gehiago). Azkenik, langabeen %9,86 25 urte baino gutxiago ditu (127, 1 gutxiago). Sakanako

langabezia Nafarroakoaren %2,86 da (populazioan %3,17 gara).

## Sektoreak

Sakanako langabeen %61,72 zerbitzuetako lan eskaera egin dute (795, 6 gehiago). Industrian %22,75ek lan egin nahiko lukete

(293, 14 gutxiago). Eraikuntzan aritzeko lan eskaera egin dutenak %6,29 dira (81, 1 gutxiago). Lehen sektorearen aukera %2,25k egin dute (29, 2 gutxiago). Azkenik, aurretik enplegurik izan ez dutenak %6,99 dira (90, 7 gehiago). +www.guaixe.eus



## Eskelak



**Hainbat aukera**

Galdetu

**948 564 275**



**Naiara**

Egunero nirekin zaude.

**Osaba Rafa**



**Francisco Javier Lazkoz Flores**

V. urteurrena

Beti gure gogoan eta bihotzean.

**Etxekoak**

Lakuntza.



GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com



**Xabino Garmendia Iriarte**

I. urteurrena

Itsaso gaindik ikusten baduzu gure gogo daraman ontzia, ez zazu pentsa galduta doanik argitzen baitu goizeko eguzkiak.

Bihotz bihotzez.

**Zu familiye**

**Xabino Garmendia Iriarte**

I. urteurrena

Beti gure bihotzean.

**Maddi, Asier eta Goizeder**

Etxarri Aranatz.

**Garazi eta Naiara**

V. urteurrena

Egunak eta gauak udak eta neguak zorion orduak bizitzaren zauriak laztanik samurrenak elkarren babesean igarotakoak.

Egusentiko ihintza goizeko loreak itsasoaren hatsa eta koloreak urruneko hiriak musika eder baten azken akordeak maitasuneko hitzak barruan gordeak.

Itzal bihurtuko naiz zu galtzen bazara zure itzalaren itzala. Gure amets bakarra, zuen irrifarrez berriro gozatzea zeruko jardinetan.

**Naiara eta Garazi**

V. urteurrena

Bost urte pasa diren arren ez zaituztegu ahazten.

Beti gure bihotzean egonen zarete.

**Zuen ondokoak**



**Garazi Garasa Guerrero**

(1994-03-30 / 2011-03-19)

Maitatu zintugun, maite zaitugu eta beti maitatuko zaitugu.

**Felipe, Trini eta Asier**



## guaixe.iragarkilaburrak.com

### NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Guaixe astekarian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne).  
Argazki bakoitzeko 3€. Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.  
Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com-en](http://guaixe.iragarkilaburrak.com-en).

### HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75  
Posta elektronikoa: [zorion@guaixe.eus](mailto:zorion@guaixe.eus)

#### Ibilgailuak

SALDU

**Toyota urdina, Rav 4 saltzen da.** Bost ate, gasolina, Etxarri Aranatzen. Tel 619 41 75 93.

#### Higiezinak

ETXEBIZITZA

SALGAI

**Etxebizitza lursailarekin salgai Etxarri Aranatzen.** 4 gela, 2 komun, sukalde-egongela, garajea eta 130 metro karratuko lursaila. Interesatuak deitu 676 92 71 65 telefonora.

**Pisua salgai Etxarri Aranatzen.** 84 m<sup>2</sup> erabilgarriak, berrituta, eguzkitsua, 3 logela, komun 1,

egongela, sukaldea, trasteleku bat pisuan bertan, berogailua. 72.000 € negoziagarriak.

#### Saldu / erosi

SALGAI

**Teka ontzi-garbigailua saltzen dut.** Gutxi erabilia, bermea du. Tel 628 42 77 25.

EROSI

**Bigarren eskuko bizikleta estatikoa.** erosiko nuke. Tel 699 780 772

#### OPARITAKOAK

**Txakurkume bat oparitzen dugu.** Arraza border collie eta euskal artzai txakurra. Tel 628 47 66 31.

#### Opatutakoak / galdutakoak

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

#### Ikastaroak

**Udako Euskal Unibertsitateak (UEU).** Bere udaberriko eskaintza aurkeztu du. Otsaila eta maiatza bitartean 4 ikastaro eta 4 hitzaldi antolatu ditu Nafarroan, [www.ueu.eus](http://www.ueu.eus)

#### JAIOTZAK

- **Jon Sayas Goikoetxea**, martxoaren 6an Altsasun.
- **Pablo Artieda Perera**, martxoaren 8an Izurdiagan.
- **Ibai Maestre Cobos**, martxoaren 9an Irurtzunen.
- **Laida Razkin Ezker**, martxoaren 10ean Lakuntzan.
- **Mari Angeles Jimenez Carbonell**, martxoaren 12an Olaztin.
- **Oihan Palomino Iraurgi**, martxoaren 13an Etxarri Aranatzen.

#### EZKONTZAK

- **Raul Lopez Bartolome eta Eneritz Unzurrunzaga Zabaleta**, martxoaren 4an Olaztin.

#### HERIOTZAK

- **Rosario Gabirondo Aseginolaza**, martxoaren 8an Altsasun.
- **Mikaela Etxeberria Betelu**, martxoaren 9an Irurtzunen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

**Nola antolatu zure agiriak zerga-betebeharrak betetzeko.** Ekintzaileei eta bere kontu lanean ari direnei, bereziki izapideak on-line egin nahi dutenei zuzenduta. Apirilak 25, 10:00-14:00. Cederna Garalur/Utzugane, Arbizu. Izen ematea 948 56 10 10 edo sakana.admon@cederna.es

**Haziendako izapideak on-line bidez nola egin.** Ekintzaileei eta bere kontu lanean ari direnei, bereziki izapideak on-line egin nahi dutenei zuzenduta. Maiatzak 2, 10:00-14:00. Cederna

Garalur/Utzugane. Arbizu. Izen ematea 948 56 10 10 edo sakana.admon@cederna.es

#### Oharrak

**Amalur Montessori Haur Eskola.** Haurra bere osotasunean hartzen duen proiektua, beren ongizatea bermatzen duen proiektu euskalduna. Harremanetarako 620 25 42 30 eta [amalur@amalurelkaratea.org](mailto:amalur@amalurelkaratea.org)

## Duatloia

## Ekain Maiza eta Iker Mintegi txapelkun Arangurenen

Igandean IV. Aranguren Bailara Duatloia jokatu zen. 10:00etan kategoriarik txikietakoa probak jokatu ziren, Nafar Kirol Jolasetarako baliagarriak zirenak, eta 12:30ean abiatu zen proba nagusia.

Kategoria txikiei dagokienez, bikain aritu ziren Sakana Triatloi taldekoak. Benjaminetan Ekain Imaz izan zen garailea, Alain Razkin seigarrena eta Aitor Aldunate hogeitahirugarrena. Emakumezkoen kimuetan laugarrena sailkatu zen Nahia Imaz, eta gizonezkoen kimuetan helmugara seigarrena iritsi zen Hegoi Lakuntza. Bukatzeko, gizonezkoen haurren mailako proba Iker Mintegik irabazi zuen.

## MAIZA OÑATI KO DUATLOIAN

Larunbatean Oñatiko Duatloia jokatu zen (9 km korrikari, 36 km bizikletari eta 4,5 km korrikari), aldi berean Euskadiko Txapelketa zena. Jon Unanue (1:46:15) eta Gurutze Frades (2:02:55) izan ziren azkarrenak. Juan Luis Maiza eta Xarriarra 45. sailkatu zen (1:56:04).

## Pilota

## GRAVNI-an murgilduta daude pilotari eta palista sakandarrak

Azkenean Iparraldeko parte hartuko du

Asteburuan hasi zen GRAVNI txapelketa, Gipuzkoa, Errioxa, Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Iparraldeko taldeen pilotari txapelketa, afizionatuen mailako txapelketa inportanteena. Polemikarekin hasi zen, Iparraldeko bertan aritzeko debekua ezarri baitzuten Frantziako Federazioak. Nazioarteko Pilota Federazioak eta Espainiako Pilota Federazioak Iparralderi parte hartzeko baimena eman diote "salbuespen gisara" eta kirol probaren mesedetan parte hartzea erabaki du Iparraldeko Ligak.

## NAFARROA VS GIPUZKOA

Lehen jardunaldian Nafarroak Gipuzkoaz gain zuen aurkari. Trinketeko emakumezkoen paleta argentinarreko jubenilen mailan, Espinallek eta Parotek (Nafarroa) 19 eta 30 galdu zuten Gipuzkoaren kontra. Aldiz, senior mailan Aristorenak eta Anduezak (Nafarroa) 30 eta 15 irabazi zioten Gipuzkoari. Frontoian, emakumezkoen paleta gomako partidak Etxarrin jokatu ziren. Jubeniletan Murilloketa Mendinuetak (Nafarroa) 30 eta 18 irabazi zioten gipuzkoarrei, eta 22 urtez azpian Igoak eta Lasak (Nafarroa) galdu egin zuten, 27 eta 30, Maiza eta Huiziren kontra (Gipuzkoa). Eskuz binakako nagusien mailan Yoldik eta Lasak galdu egin zuten, 16 eta 22, gipuzkoarren kontra.

## Duatloia

## Arbizuko Duatloiak 20 urte

**Arbizuko 20. Duatloia** jokatu da bihar, 15:30ean. Goizean, 10:00etan, **Arbizuko IV. Haur Duatloia** jokatu da, Nafar Kirol Jolasetarako baliagarria

Arbizuko udalak Arbizuko 20. Duatloia antolatu du biharko, larunbaterako. Proba antolatzeke Udalak Sakanako Triatloi Taldearen, Sakanako Mankomunitatearen, Nafarroako Triatloi Federazioaren, Arbizu Kirol Elkartearen, Aralar Txirrindularitza Taldearen eta hainbat enpresa eta komertzio enpresa laguntza izan du. Arbizuko Nafarroako Txapelketarako eta Euskal Herriko zirkuiturako baliagarria da.

## Zirkuitua

Arbizuko 19. Duatloiko irteera plaza parean izanen da. Emakumezkoak 15:30ean aterako dira eta gizonezkoak 15:35ean. Herrian barna 4 kilometroko zirkuitu bat prestatu dute, eta hasieran zirkuitu horri bi buelta eman behar ko zaizkio korrika (proba herrikoiekoek eta kadeteek buelta bakarra). Ondoren, boxetan bizikleta hartu eta 32 kilometro egiten dituzte, Kale Nagusitik abiatu, Lizarragako Katera igo eta Etxarritik barna Arbizura heltzeko lana bitan eginez (proba herrikoiekoek eta kadeteek buelta bakarra). Ildo honetan, txirrindulari proban duatletek ezingo dute aurre-

## Betikoa, herrikoia edo erreleboka



Batetik, betiko ibilbidea izango da -8 km korrikari, 32 km bizikletari eta 4 km korrikari-. Ibilbidean ez dago aldaketarik, duatletek Arbizuko ibilbidea oso gustukoa dutelako. Lizarragako Katera igo behar da bitan, eta haizeak jotzen badu oso gogorra izaten da. Baina askorendako luze egin daitekeelakoan, proba herrikoia prestatu dute bigarren urtez jarraian, ibilbide bera izango duena baina distantzia erdia -4 km korrikari, 16 km bizikletari eta 2 km korrikari-. Ibilbide hau kadeteek eta proba herrikoian parte hartu nahi dutenek osatuko dute, proba nagusia handi geratzen zaiznei. Horretaz gain, Arbizuko duatloia erreleboka egiteko aukera ere egongo da, hau da, batek korrika eta besteak bizikletaz egiteko aukera. Bikoteak mistoak ere izan ahal dira. Bestalde, paraduatletek ere badute proban parte hartzeko aukera.

ko edo ondokoaren gurrupilari lotuta joan (no drafting).

Bukatzeko, txirrindulari boxetan utzi eta herriko zirkuituari buelta bat emanen diote korrikari, 4 kilometro eginez (proba herrikoiekoek eta kadeteek erdia).

## Duatleta asko

Badirudi aurtengo Arbizuko Duatloiak errekorrak apurtuko dituela, helduen kategorian dagoeneko

212 duatletek eman baitute izena. Haurren probetarako 103 daude izena emanda. Nolanahi ere, eguraldiak eragina izango du. Lasterketa polita espero da, inoiz baino irekiagoa izanen baita proba.

## Sari arbizuarrik

Proba bukatuta sari banaketa egingen da Arbizuko plazan. Lehenengo gizonak eta emakumeak 150 euro eta txapela jasoko dituz-

## Goizean haurrak

**10:00etan:** Goizeko 10:00etatik aurrera IV. Haur Duatloia jokatu da, Nafar Kirol Jolasetarako baliagarria. Aurrebenjaminak 10:00etan, benjaminak 10:20ean, kimuak 10:55ean eta haurrak 11:25ean lehiatuko dira. 103 duatleta daude izena emanda.

te, bigarrenek 100 euro eta hirugarrenek 50 euro. Horretaz gain, 23 urtez azpiko, junior mailako, beterrano mailako, proba herrikoieko, erreleboetako eta paratriatletako lehen gizonak eta emakumeak Arbizuko produktuen loteak jasoko dituzte Arbizu, Laketa eta Florensen eskutik. Aipatzekoa da partaide guztiek txistorra jasoko dutela dortsala bueltatzerakoan. Horretaz aparte, parte-hartzaile guztien artean asteburu bateko egonaldia zozketatuko da Arbizuko eko kanpinean eta Olatzea Hotelean. Bukatzeko, auzatea izanen da Aldabide elkartean.

Antolakuntzak Arbizura gerturatzeko direnei Lakuntzatik edo Etxarritik sartzeko deia egin die, duatloia dela eta Arbizuko herri gunea itxita egongo delako. Halaber, segurtasuna bermatzeko bidegurutzeetan egongo diren boluntarioei kasu egiteko eskatu dute. Ildo honetan, antolakuntza lanean pertsona ugari ariko dira eta antolatzaileak "oso eskertuta" daude.

## Automobilismoa

## I. Sakanako Lurgaineko Rallya, bertan behera

**Asteburu honetan jokatzekoa zen baina Sakanako Motorsportek ezingo du antolatu, Nafarroako Gobernuak Ingurumen Departamentuak baimena ukatu duelako**

Sakanako Motorsport taldearen aspaldiko ametsa zen Sakanako lurgaineko rallye bat antolatu ahal izatea. Lan guztiak eginda, ibilbidea prestatuta, Olaztik eta Altsasuko udalen baimena eskuan eta bete beharreko arau guztiak beteta eta zehaztuta, asteburu honetan, martxoaren 19an eta 20an jokatu behar zen I. Sakanako Lurgaineko Rallya, Olaztik eta Altsasuko dermioletan. Baina azken uneko erabaki batengatik bertan behera geratu da. Nafarroako Gobernuak Ingurumen-kudeaketa sekzioak ez du rallya emateko baimena eman.

## Arrazoiak

"Ingurumen-kudeaketa sekzioetik komunikatu ziguten erabakia hartzeko Olaztik Udalarekin harremanetan jarri zirela, baina hori ez

da horrela" salatu du Sakana Motorsportek. Ingurumen-Kudeaketa Sekzioetik adierazi dietenez, rallyak ingurumenean eragina izan dezake, bertan babestutako espezieak aurkitu direlako, eta berriki konpontutako Zapparregiko pista hondatu daiteke. "Baina gauregun, bertan basoko lanak egiten ari dira, zuhaitzak ateratzen. Nonbait, motozerren, makinaren eta kamioien hotsak ez du eraginik ingurunean eta autoenak, bai. Eta, nonbait, pisuz betetako kamioi horiek ez dute pista hondatzen eta guk bai. Gainera, eremu hori trenbidearen paraleloa da; trenek sekulako hotsa egiten dute, espezieak kaltetu ahal dituen, eta ez da trenen pasaera galeratzen" salatu du Sakana Motorsportek.

Sakana Motorsportek gogoratu nahi izan du taldea osatzen duten kideak, Sakanako motorzaleak eta kirolariak direla, eta taldea etekinik asmoko taldea dela.



Sakana Motorsportek aurrerago rallya antolatzetik duen aztertuko du.

"Motorraren munduko ekitaldiak antolatzea da gure helburua, Urbasako Igoera, esaterako".

## Elkartasuna

Sakana Motorsportek urriaren 1ean 36. Urbasako Igoera antolatu du, eta aurrerago rallya antolatzetik duten edo ez aztertuko dute. Erabakiak hautsak harrotu ditu

eta elkartasun handia jaso dutela aitortu dute Sakana Motorsportekoek. Halaber, ekitaldia bertan behera geratzeak Sakanako beste motako kalteak sortu dituela nabarmendu dute. "Inguruko hotel eta landetxeetan egindako erreserba guztiak bertan behera geratu dira. Asteburuan barna 120 lagun bertan egotea aurreikusten zen".



## Botxa

## Irurtzun Gazteak, Nafarroako finalerdietan

Petanka antzeko joko tradizionala da botxa, Irurtzongo Iratxo elkar-tean gogoz jokatu eta sustatzen dutena. Nafarroako Botxa Txapelketa azaroaren 14an hasi zen. Guztira 19 talde lehiatu dira, tartean Irurtzongo hiru talde: Irurtzongo Gazteak-Iñigo Carballo, Xabier Larraitz eta Xabier Agustino-, Irurtzun 1-Txeli Garcia, Tere Yeregi eta Juanito Maestre- eta Irurtzun 3-Txutxurri, Mikel Olló eta Mikel Goldarazena-.

## Asteburuan finalerdiak

Hasierako ligaxka eta final laurdenak jokatu eta gero, Irurtzun 1 eta Irurtzun 3 taldea bidean gelditu dira. Baina Irurtzongo Gazteak taldea finalerdietarako sailkatu da, Berangos taldeari 20 eta 12 irabazi eta gero. Nafarroako Botxa Txapelketa finalerdiak asteburu honetan jokatuko dira eta final handiak apirilaren 3an.

## Mendia

## Peñas de Aia-Oiartzun Sakanako Mendizaleekin

Igandean 7:30ean aterako da autobusa Olaztitik

Sakandako Mendizaleak taldea ibilbidea antolatu du iganderako, martxoaren 20rako. Gipuzkoa aldera joko dute, Aiako Harritik abiatu eta ibilbide ederra egin ondoren, Oiartzunen despeditzeko.

Autobusa goizeko 7:30ean abiatuko da Olaztitik. Interesatek ohiko tokietan eman dezakete izena edo 639 11 76 31 telefonora hots egin dezakete.

## Kick Boxing

## Jon Arakama, Euskadiko txapelduna

Euskadiko Kick Boxingeko Light Contact, Semi Contact eta Kick Light Contact Txapelketatik 3 urrezko domina ekarri ditu etxarriarrak eta Euskadiko txapelduna dugu

Albiste onak datoz arte martzialetatik. AMETS-Txuixoo Yoseikan Budoko elkartetik adierazi digutenez, Jon Arakamak sekulako erakustaldia egin zuen larunbatean Gallartako Txikito pilotalekuan jokatutako Euskadiko Kick Boxing Txapelketan. Jon Arakamak urrebana lortu zuen light contact, kick light eta semi contact modalitateetan eta aipatutako hiru modalitate hauetako Euskadiko txapelduna

na dugu, 69 kiloz azpiko kategorian. Halaber, Arakamak Espainiako Kick Boxing Txapelketan Euskadi ordezkatu du. Horretaz gain, gaur, ostiralean, K1 estiloan debutatu du Jon Arakamak, 64 kilotik beherako kategorian, Urduluzen.

## Combat Jujitsu

“Yoseikan Budoren zeharkakotasunak bere borrokalariari beste hainbat modalitate aritzeko trebetasuna ematen die, eta aurten Estatuko zein Europako hainbat txapelketetan ariko dira gure kirolariak” gaineratu du elkarteak.



Jon Arakama Euskadiko Kick Boxingeko podiumaren gorenean. UTZITAKOA

Hala, Oihan Arnanz, Xuban Muñoz eta Manex Goikoetxea altsasurerek, Iparraldeko beste hiru kide-

rekin batera, maiatzaren 7an Combat Jujitsuko Andaluziako Irekian parte hartuko dute, Nerjan.

## Txirrindularitza

## Lilasterketa: 90 emakumek “hemen gaude” esan zuten

Adin guztietako 90 emakumek Altsasuko kaleak hartu zituzten igandegoizean. Txikienak, silletan eta aulkitxoetan. Helduenak, ibiltzen. Gazteenak, korrikan, bizikletan edo patinetan... Kontua III. Lilasterketan parte-hartzea zen. Eguraldia lagun, San Silvestrearen ibilbide berbera egin zuten. Oinezkoek itzuli bat eman zioten zirkuituari (2 km inguru), korrikalariak 2 itzuli (4 km inguru) eta irrastalariak eta txirrindulariak 3 itzuli (6 km inguru).

Altsasuko Udaleko Emakume eta Berdintasuna Batzordeak antolatu zuen Lilasterketa, Dantzaleku Sakana klubaren, DYaren eta Vir-

ginia Ruiz de Egin medikuaren laguntzarekin. Berdintasunaren aldeko lasterketa hau ez da proba lehiakorra. Emakumeen nazioarteko egunaren barruan antolatzen da, Donostiako Lilatoiezaguna aintzat hartuta. “Emakumeak gizartearen erdia gara, eta erdia izan behar gara arlo guztietan: enpleguan, politikan, hezkuntzan, festetan eta kirolean. Hauxe guztia da Lilasterketarekin azaldu nahi duguna” adierazi zuen Altsasuko berdintasun teknikari Idoia Goikoetxeak.

Gehienek korrikan osatu zuten proba (48). Oinezkoak 19 izan ziren, txirrindulariak 12 eta irrastalariak 7. Bi neska txiki silletan joan ziren.



Bukaeran hamaiketako animatua izan zen plazan.

## Helburuak

Lilasterketarekin emakumeen parte-hartzea erakutsinahizen. “Gure lana erakusteko, hemen gaudela esateko, denon artean aurrera joateko indarrak hartzeko, gure ahalduzkoen bidean beste urrats bat emateko... eta hau guztia korrika eginez, oinez... edo lasterketa animatuz” gaineratu zuen Goikoetxe-

ak. Beste helburua emakumeei kirola egitera animatzea zen. “90 emakume korrikan ikustea edozein kanpaina baino eraginkorragoa da” azaldu zuen teknikariak. Emakumeak izan ziren protagonistak eta hori zen lortu nahi zena. “Behingoz protagonistak emakumeak izateko. Kalea har dezagun, espazio publikoa gurea ere badelako”.

## Herri kirolak

## NAFAR KIROL JOLASAK

## Andra Mari, Iñigo Aritza eta Leziza, finaletan

Igandean Nafarroako Herri Kirol Jokoen finalak jokatuko dira Berriozarren, 11:00etan

Nafar Kirol Jolasak badituzte finalistak. Igandean Txapelketako laugarren eta azken jardunaldia jokatuzen Larrainzarren, eta jardunaldi guztiak kontuan hartuta, puntuazio onena duten lau taldeak sailkatu dira larunbatean Berriozarko kiroldegiko pistan 11:00etan jokatuko diren finaletara.

Nafar Kirol Jolasak hiru kategorietan banatuta jokatzen ari dira: kimuak, haurrak eta kadeteak. Proba konbinatueta 30 talde lehiatu dira eta sokatira txapelketan 13 talde. Tartean, talde sakandarrak. Zehazki, Iñigo Aritza ikastolatik sortutako taldeak -Iñigo Aritza, Aizkorri eta Urbasa- eta Andra Mari ikastolatik sortutakoak -Andra Mari, Ondatz, Beriain, Andia, Leziza eta Utzubar-.



Nafar Kirol Jolasetan parte hartzen ari diren Andra Mari ikastolako neska-mutikoak.

## Emaitzak

Iruritan, Ororbian, Etxarri Arantzen eta Larrainzarren jokatutako jardunaldien ondoren, ondokoa da talde sakandarrek egindako lana. Kimuen mailako proba konbinatueta Berriozar B sailkatu da lehena (28:04), Andra Mari bigarrena (28:06), Beriain 7.a (29:31), Urbasa 9.a (29:47), Andia

10.a (29:47), Aizkorri 11.a (30:16) eta Ondatz 12.a (30:59). Haurren mailako proba konbinatueta Basaburua gailendu da (36:46). Andra Mari 3.a (38:48) izan da, Iñigo Aritza 4.a (42:19), Leziza 6.a (43:15) eta Utzubar 8.a (47:23). Eta kadeteen mailako proba konbinatueta Andra Mari izan da lehena (40:04) eta Iñigo Aritza 4.a (45:33). Beriain 6.a sail-

katu da (47:18).

Bukatzeko, sokatiran, haur mailan, A multzoan Iñigo Aritza gailendu da (11 puntu) eta Leziza bigarrena izan da (7 puntu). B multzoan Andra Mari izan da fina (12 puntu). Eta kadeteen mailan, A multzoan Andra Mari izan da onena (12 puntu) eta Iñigo Aritza hirugarrena (5 puntu). B mul-

tzoan Basaburua (14,5 puntu) nagusitu da eta Beriain hirugarrena izan da (7 puntu).

Hortaz, biharko finaletan ordezkaritza polita izango dugu, Sakana herri kirolak zaintzen eta lantzen diren seinale, eta ea gure taldeak pozik etortzen diren Berriozartik.

## Finalak

Larunbatean, 11:00etan Berriozarren

**Kimuen proba konbinatueta:** Berriozar B, Andra Mari, Araxes eta Igantzi B.

**Haurren proba konbinatueta:** Basaburua, Arartziri, Andra Mari eta Iñigo Aritza.

**Kadeteen proba konbinatueta:** Andra Mari, Basaburua, Araxes eta Iñigo Aritza.

**Haurren sokatira:** Iñigo Aritza, Leziza, Andra mari eta Basaburua.

**Kadeteen sokatira:** Andra Mari, Ultzama, Basaburua eta Araxes.

# Bardoen finala Etxarrin

Larunbatean, 17:00etan, Etxarri Aranazko Euskalerriri frontoian. Finalaren ondoren triki-poteoa egonen da eta ekimena despeditzeko Bardoen afaria izanen da

**B**ardoak, Nafarroako taldekako txapelketaren hirugarren edizioa, Etxarrin jokatuko den finalarekin, bihar bukatuko da. Bi hilabeteko lehiaren ondoren hiru talde izan dira finalera iritsi direnak: Obario Maldikoak (Saioa Alkaiza, Aimar Karrika eta Irati Majuelo; Iruña), Ate-kaberts (Ander Fuentes "Itturri", Joanes Illarregi, Xabat Illarregi eta Migel Mari Elosegi "Luze"; Lei-



tza) eta Larungo Antenak (Julen Zelaieta, Aitor Elexpuru, Patxi Castillo eta Jokin Pinatxo; Bera). Bardoetan parte hartu duten gainera-

ko taldeetako kideek zein entzuleen botoek erabakiko dute zein talde den Bardoen hirugarren edizioako talde irabazlea.

## Sarrerak

[www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian edo Etxarri Aranazko Leku Ona eta Xapatero tabernetan.

Bardoen hirugarren edizioa ilbeltzaren 22an abiatu zen. 16 talde parte-hartzaileen artean Etxarri Aranazko Einnekin eta Altsasuko Bota lasai taldeak zeuden. Lehen fasean saio bat irabazi zuten baina ez zuten bigarren fasera pasatzea lortu. Etxarri-rrak bai, baina finalaren atean gelditu ziren.

## Lana

Hiru taldeek hasierako agurra taldeka egin beharko dute, eta puntuagarria izanen da. Ondoren fina-

leko lana bost ataletan banatuko da. **1. atalean:** zortziko handian binaka gaia emanda hiruna bertso, zortziko txikian binaka ofiziala hiruna bertso eta sei puntuko motzean binaka ofiziala hiruna bertso. **2. atalean:** zortziko txikian hiru punturi erantzun, objektu bati bertso bana eta gaia emanda doinu eta neurri librean bertso bat osatu, publikoak oinak asmatuz ("potokumeak"). **3. atalean:** koplak taldeka, bi kideren artean eta gaia emanda talde bakoitzeko taldekide banak bi bertso osatzea. **4. atalean** hiru rol desberdinekin eta egoera emanda, hiruko ofizioa, bina bertso osatu arte. **Finala** akaberako banakako agurrarekin despeditu aurretik, taldekindean artean puntukako saioa egin beharko dute.

## Castillo Suarez Altsasuko idazlea Zelandin

**A**ltsasuko Zelandi eskolako Haur Hezkuntzako 5 urteko ikasleek Castillo Suarez idazlearen bisita izan zuten. Otsailan haren *Ebelina Mandarin* liburua irakurri zuten eta hilaren bukaeran idazlea bera gelan zutela, neskato kaskagorriari buruzko galderak egin zizkioten. Suarezek liburua nola sortu zen azaldu zien.

Ikastetxe bereko Lehen Hezkuntzako 2. mailako ikasleak ere idazle altsasuarrarekin izan ziren. Suarezek haur literaturako liburuen berri eman zien ikasleei (*Krispeta hegalariaik*, *Muxurik nahi?*, *Erikaren ttilikak*, *Amalia eta Amelia* eta *Nobio bat nire ama-*



*rentzat*). Ikasleei barregarri suer-tatu zitzaiezen amarendako nobio bila dabilenaren istorioa. Saioaren ondoren Suarezek ikasleei liburuak sinatu zizkien.

## Argazkilaritzaz Urbasan



**A**ltsasuko Mendigoizaleak argazkilaritza eta mendia maite dituen lagun mordo bat elkartu zituen larunbatean. *Urbazaz gozatuz* ekimenaren bigarren ediziora aurkeztutako 60 argazkiak ikusgai izan ziren. Ekimeneko antolatzaileek Urbasako puntu bati, Sagarmingo baltsa,

argazkia ateratzeko proposamena egin zuten. Urbasako saroiaren mutur batean dagoen baltsara batzuk zuzen joan ziren baina beste batzuk, negu giroan, iristeko komediak izan zituzten. Mokadu bat jenez, halakoez, argazkilaritzaz eta euren zaletasunez hizketatzeko aukera izan zuten.

## Argazki erakusketa Iortian

**C**onocer Navarra 2015eko argazki lehiaketako 30 finalisten lanen erakusketa Altsasuko Iortia kultur gunean izanen da ikusgai. Gaurtik apirilaren 10era arte kultur guneko ezkaratzean eta pasabideetan Nafarroako paisaiak jasotzen dituzten argazkiak ikusgai izanen dira.

Bestalde, argazki lehiaketa antolatzen duen aldizkariak bere hurrengo zenbakia Altsasun aurkeztu zuen herenegun.



## bazterretik

Jose Luis Asensio

### Ramen

Japoniar sukaldaritza klasikoari buruz ari garenean, sushia burura etortzea da ohikoena. Baina jaki modernoari buruz ari garenean, ramen eta berehalako fideoei buruz hitz egitea beharrezkoa da. Ez dakienarentzat, fideo lehor hauek, ur beroa eta fideoekin datozen zaporea ematen dioten hauts batzuk gehituta, bost minutuan jateko prest daude. Presaka dabilenarentzat edo beste gauza bategiten duen bitartean tripa bete nahi duenarentzat oso egokiak. Eta alferrentzat noski.

Gaur egun, gure gizartera ere iritsi dira eta Dani Rovira jaten ditue-

naren plantak egiten ikus dezakegu telebistan. Baina orain dela zenbait urte, zaila zen antzekorik aurkitzen, eta komiki topaguneetan soilik zen posible, edo janari denda oso berezietan, Bartzelonan edo Madrilan. Komiki eta pelikula askotan gainera, protagonistak fideo hauek jaten agertzen ziren eta zaleentzat ez zen beste aitzakiaren beharrik haien bila joateko.

Jatorria, nahiko berezia dute. Asmatzailea, Momofuku Ando, Taiwanen jaio eta bigarren gerrate mundiala bukatu zenean, Japoniara joan zen bizitzera. Kartzelan ere egon zen, ehungintzaren inguruan zuten enpresarekin diru gestio arazoak izan ondoren. Kartzelatik ateratzean, jana-

riaren arloan saiatu zen arrakasta izaten eta Estatu Batuek japoniar gizar-teari inposatu nahi zion elikadura-rekin ados ez egotean, fideo hauekin lanean buru-belarri hasi zen. Froga asko egin ondoren, 1958. urtean sortu zituen lehenengo berehalako fideoak baina freskoak baino hiru aldiz garestiagoak ziren eta minutu bategosi behar ziren uretan.

Hala ere, ez zuen amore eman, eta hamabi urte inguru pasa ondoren, fideoak poliestireno pote batean saltzea otu zitzaion. Bertso honetan, zuzenean potea ireki eta barruan fideo lehorrak zeudela urberoz bete ondoren, bost minutu nahikoa zen barruko xamur xamurra jateko. Simpletasuna arrakasta bihurtu zen eta oso

aberatsa egin zen Momofuku.

Hala ere, ez zen kasualitatea izan. Gaur egun, zaporea guztietako fideoak saltzen dira, baina lehenengo bertsoa, oilasko zapoerarekin egin zuten. Zergatik? Bazeki elako munduko erlijio gehienek jaten zutelako oilaskoa, eta traba gutxiago izango zituelako saltzeko orduan. Hala ere, ez pentsa jaki hau miragarria denik. Bitamina, zuntz eta mineral gutxi dauzka, eta hidrato asko, ordea. Hori gutxi balitz, glutamato monosodikoa eta koipe ugari ere gehitzen zaizkio. Askok, gizar-tearen ongizatearen maila neurtzeko balio dutela ere esaten dute, jendeak sukaldatzeko denborarik edo dirurik ez duenean fideo



hauen kontsumoa ikaragarri igo-tzen delako, adibidez 1997ko Asiatiko krisian.

Dena dela, 2000. urtean Japonian egindako inkesta baten arabera, gizar-teak fideo hauek XX. mendeko asmakizun onenetariko bat zela adierazi zuten, eta Momofukuk, ia egunero jaten zituela zioen eta 96 urte zituela hil egin zen. Nork daki.

# Haur eta gaztetxo kantari sorta Lakuntzan

Larunbatean, 18:30ean, Lakuntzako kultur etxeak Nafarroako Haur eta Gazte Kantarien Jaialdia hartuko du

Banaka, binaka edo taldeka. Nafarroako Haur eta Gazte-txo Kantarien Jaialdian herrialde guztiko 470 bat abeslari ari dira parte hartzen. Orkoien eta Lodosako jaialdien ondoren, Lakuntzan haletako 139ren txanda izanen da, bihar: Bost herrietako kantariak igoko dira Lakuntzako eszenatokia, guztira 13 kantu emateko. Lakuntzako eskolako 50 haur eta gaztetxok, lau taldetan, kanta bana eskainiko dute. Lakuntzako San Saastin musika eskolako beste talde batek, 16 kide, beste kanta batekin parte hartuko du.

Berriozarrek igandean azken jaialdia hartuko du. Azkenik, apirilaren 30ean, Tafallan, Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantarien Jaialdi Nagusia izanen da. Jaialdi horiek haur eta gaztetxoei eszenatokia atera eta euskarazko kantuak abesteko aukera eskaintzen diete. Hala izan da azken 26 urteetan. Jaialdiek "norberak barruan duena" erakusteko balio dutela esan digu Amaia Dominguez Gonzalo antolatzaileak (Tafallako musika irakaslea



Taldea / kideak	Maila	Kanta	Egilea
Sunbillako eskola	LH 1-2	Haurpopurri	
Sunbillako eskola	LH3	Agur Xuberoa	Etxahun Iruri
Sunbillako eskola	LH4-6	Salamankara	Herrikoia
Luis Fuentes eskola	LH 1-2	Euskara da Euskal Herri	Iñigo Aritza ikastola
Luis Fuentes eskola	LH3	Hazi eta hezi	Pirritx, Porrotx eta Marimototsen moldaketa
Luis Fuentes eskola	LH4	Udarako gau luzeak	Venddeta
Luis Fuentes eskola	LH5-6	Behar zaitut	Hesian
San Saastin musika eskola	8-11 urte	Txingurrite	Martin Larraza
Elizondoko abesbatza txikia	8-16 urte	Bizirik gaudelako	Olatz Zugasti
		Non dagoen denbora	Mikel Urdangarin
		Marbxa baten lehen notak	Mikel Laboa
		Aldapeko	Kalakanen moldaketa
Aranoko haurrak	6-10 urte	Aberriaren mugak	Txomin Artola / Joxerra Gartzia

eta Kantuzale Elkarteko kidea). Nafarroako Gobernuak duela bost urte jaialdiak diru-lagun-

tzarik gabe utzi zituen eta, ordutik, Kantuzale Elkartean izen-an Dominguez arduratu da haiek

antolatzeaz, diru babesik gabe. Lakuntzako Udalaren laguntza izan du.

## Albumak ilustratzera

Martxoaren 30ean, asteazkenean, 17:00etatik 19:00etara, Arbizuko liburutegian

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak album ilustratua sortzeko tailerra antolatu du. Etxepare Sariaren egitasmoaren barruan dago ekimena eta haurrak albumen mundura gerturatzeko helburuz antolatu da. 6 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzendutako tailerra da eta umek album bat

### Izen ematea

Arbizuko liburutegian egin behar da martxoaren 22a baino lehen: 948 017 777 telefonoa edo liburutegia@arbizu.eus e-posta.

nola egiten den ikasiko dute, hitza eta irudia elkartuz, bi profesionalen laguntzarekin. Aitziber Alonso ilustratzailea eta Yolanda Arrieta idazlea izanen dira tailerra emanen dutena.



## Musikarte: musika eta artetik sormenera

Martxoaren 21etik apirilaren 4ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean

Agustin Gonzalez Aziluren Arrano beltza arte sormenerako oinarri gisa. 1976ko musika pieza atonal abangoardista hori Artzeren poema batean oinarriturik dago eta Nafarroako erresumaren galeraren inguruan ari da. Langai horrekin Iñigo Aritza ikastolako eta Txioakako haur ikastolako ikasleek euren sormena erabiliz artelanak sortu dituzte, astelehenetik aurrera jendaurrean ikusgai izanen direnak.

Musikarte proiektua aurrera eramateko, lehenik, ikasleen moti-

bazioa landu zuten. Horretarako, Igor Ijurra musikariaren eta Patxi Abasolo historialariaren hitzaldi bana izan zuten ikasleek. Horrekin batera, Irati Urrestarazu, Elena Santano eta Sandra Galbete artista sakandarrekin saio praktikokoak izan zituzten. Horren guztia ondoren, ikasleek musikak sortutako sentimenduak eta espresioak aintzat hartuz, sortu nahi zituzten obrak diseinatu zituzten. Ikasleek interpretazio artistiko ezberdinak sortu dituzte, Iortian ikusgai daudenak.

### Hirugarren aldia

Altsasun kokatuak dauden bi ikasleek duela lau urte hasi ziren Saka-



nako artistak aitzakia moduan hartuz ikasleekin sormena lantzen, Txioaka haur ikastolatik hasi eta DBHko ikasleetaraino aritzen dira proiektuetan lanean. Aurreneko aldian Txuspo Poyoren, Dora Salazarren eta Jose Ramon Andaren eskulturez baliatu ziren lanak sortzeko. Duela bi urte, berriz, Castiello Suarez eta Alberto Barandiaranen obrak izan ziren sormenaren ardatza. Eskultura eta literatura-aren ondoren, musikarendako txanda izanda oraingoan.

### Mustutze ekitaldia

Martxoaren 22an, asteartean, 18:00etan Iortia kultur gunean.

## Non erabili

### IZARA

#### ALTSASU

%5eko deskontu zuzena etxeko jantzi eta osagarrietan.

### TXIKITXO

#### ALTSASU

60 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-txartel bat hurrengo erosketan erabilitzeko.

### NAMASTE YOGA

#### ALTSASU

Bi yoga klase doan.

### TIPI TAPA OINETAKOAK

#### ALTSASU

60 €ko erosketagatik %10eko deskontua (eskaintza ez metagarria).

### VIZU ILEAPAINDEGIA

#### ITURMENDI

30 €ko gastuarekin, %10eko deskontua.

### ALDASORO HARATEGIA

#### ALTSASU

30 €ko erosketatik batengatik etxeko produktua opari.

### ALFA INMOBILIARIA

#### ALTSASU

Etxe edo pisu baten erosketagatik 100 €ko txekoa opari.

### KIXKUR ESTETIKA ZENTROA

#### ZIORDIA

30 €ko gastuarekin %20eko deskontua produktuetan.

### IORTIA HORTZ KLINIKA

#### ALTSASU

%10eko aho garbiketetan eta hortz ateratzeetan. Azterketa doan.

### JULENE KORTSETEGI ETA LENTZERIA

#### ALTSASU

%5eko deskontua 50 €tik gorako erosketetan.

www.guaxe.eus-en zerranda osoa ikusgai



**BAZKIDETZA 50€**  
**948 564 275**

## G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 10%	euria: 48%	euria: 70%	euria: 50%	euria: 58%	euria: 38%	euria: 28%
Min: 0 Max: 11	Min: 5 Max: 9	Min: 5 Max: 11	Min: 3 Max: 11	Min: 4 Max: 6	Min: 3 Max: 7	Min: 2 Max: 8

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	12.5	0.5	49
Etxarri A.	11.9	-1.4	62
Altsasu	11.5	-0.5	41.9
Aralar	2.9	-3.6	0.1
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia >>

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
23	31	7	14

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

## Bazkide zozketa

MARSUKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri: 2 sarrera.  
 Artazako Kanpina: %10eko deskontua.  
 Aquarium: sarrera bat.  
 Lacturale: esneki lotea.  
 Artium museoa: 2 sarrera.  
 Gaztezulo: 3 hilabetez doan.  
 Magna Gurpea: 2 sarrera.

2.,3. ETA 4. SARIA:

Artazako Kanpina: %10eko deskontua.  
 Aquarium: sarrera bat.  
 Lacturale: esneki lotea.  
 Artium museoa: 2 sarrera.  
 Gaztezulo: 3 hilabetez doan.  
 Magna Gurpea: 2 sarrera.

# >> 11 galdera

Jesus eta Mikel Senar

Andra Mariko herri kirol entrenatzaileak

Testua: Eñaut Agirrebengoa Apaolaza



# papergintza

## jantzi zure kolorez

Guaixe KOMUNIKAZIOA

948 564 275 argi@guaixe.eus

**1.- Jesus, noiz hasi zinen Andra Mari ikastolako haurrei herri kirol entrenamenduak eskaintzen?**

**J:** 1990 inguruan. Irakasle bat entrenamenduak egiten hasi zen, eta galdetu zidan ea prest egongo nintzatekeen ni ere horretan aritzeko. Animatu, eta geroztik hor nabil. Izugarri gozatu dut haurrak entrenatzen eta orain ere oso gustura nabil.

**2.- Gauzak asko aldatu dira?**

**J:** Aldaketa handiena ikasleen izaeransomaten dut. Hasierako urteak erantzukizun gehiago zuten. Gurasoen jarrera ere desberdina zen. Gainean zeuden. Horrekezu esan nahigaur egungoak gaizki ari direnik. Haurrak entrenamenduetara oso gustura etortzen dira, eta gauzak behar bezala egiten dituzte. Alabaina, lehen konpromiso aldetik maila bat gorago zeuden.

**3.- Eta irakasleen partetik?**

**J:** Irakasleen aldetik ez da aldaketa esanguratsurik eman. Aldaketa handia izan duena arautegia izan da. Horrek ekarri duena da entrenamenduak kategoria guztietan parekatzea. Orain proba konbinatua astean bi edo hiru aldiz entrenatzen dugu, eta trontza saioak ikastolako atsedendietan egiten ditugu, astean hiruzpalau aldiz, haur eta kadeteekin. Sokatiran, asteansaioaldi bakarra egiten dugu.

**4.- Orain zuk, Mikel, aitaren urratsak jarraitzea erabaki duzu.**

**M:** Bai. Magisteritza ikasketak egiten nituen eta gero Salamancan gorputz

heziketako espezialitatea egin nuen. Denbora baten ostean Andra Marin soinketa irakasle postua lortu nuen. Kasualitatea, plaza aitak utzi zuen libre, jubilazioagatik. Andra Mariko gorputz hezkuntza irakasleak bere egin beharretako bat bezala dauka herri kirolen antolakuntzaz arduratzea. Eta horrela iritsi naiz.

**5.- Entrenamendutan batera aritzen zarete?**

**J:** Joan zen urtean bai, baina aurretik, Lehen Hezkuntzakoak eta DBHkoak eraikin desberdinetan daudenez, bakoitza bere aldetik aritzen gara. Ni haur eta kadeteekin nabil eta Jon kimuekin.

**6.- Denera zenbat haur entrenatzen dituzte?**

**M:** Aurten 104. Guztira bederatzi talde ditugu: lau kimutan, hiru haur kategorian, eta bi kadetetan.

**7.- Erraza al da denak gobernatzea?**

**S:** Bai, nahiko erraza da. Txikiak direla dinamika ezagutzen joaten dira, eta berehala ohitzen dira. Horrela, DBHn daudenean jada badakitenola egin behar duten lan.

**M:** Hasieratik garbi dute taldea dela irabazi edo galtzen duena. Gu beti saiatzen gara talde osoaren garrantzia azpimarratzen.

**8.- Zergatik dago horrenbesteko zaletasuna Andra Marin?**

**S:** Urte asko daramatzagu herri kirol entrenamenduak eskaintzen. Guk herri kirolak curriculumean sartuta ditugu. Sei urte dituztene herri kirolak barnerratzen joaten dira. Horrela, haurrengan zale-

tasun hori pizten dugu. Beti izaten dira bosgarren mailara iristeko irrikitan, orduan hasten baitira probetan eta parte hartzen.

**9.- Zeri ematen diozue garrantzia gehiago, irabazteari edota ondo pasatzeari?**

**S:** Beti esaten dugu: irabazi edo galdu, berdina zaigu. Helburua da jolas-tuz gozatu eta harreman onak egitea. Eta hori oso aberasgarria da.

**M:** Bakoitza pixkanaka hobetzen joatea ere gure helburuetako bat da. Ez txapelketa irabazi nahi dugulako, baizik eta bakoitzak bere bertsiorik onena eman ahal izatea nahi dugulako. Hobetzeko egindako esfortzua asko nabaritzen da denboraldi amaieran.

**10.- Deskribatu entrenamendu bat.**

**S:** Asteburuko probetako ariketa berdina egiten ditugu, baina gure artean.

**M:** Bilatzen duzuna da umeek parte hartzea eta berengan zaletasuna piztea.

**11.- Beste kirolekiko zer berezitasun dute herri kirolek?**

**M:** Gureak dira. Euskal Herriko kirol herrikoi bat da, ez da beste nonbaitetik etorritakoa. Nekez aurki daiteke herri kirolak baino kirol garbiago eta osasuntsuagorik. Biolentzia eta oldarkortasun arrastorik ere ez da izaten. Bakoitza bere onena ematen saiatzen da, talde lanean, eta kito. Lehiakideen arteko harremana guztiz bake-tsua izaten da. Are gehiago, taldeak elkarri animatuz aritzen dira. Hori zaila da beste inon ikustea.